

ek!

eta kitto!
euskara elkartea

2024ko otsailak 23 · 1302 zenbakia



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Fokatu hemen
zure mugikorrarekin
eta iritsi
gure webgunera



•Kataraten eta presbiziaren kirurgian espezialistak.

Plaza Barria, 2. 2º
Telf.: 943 201 844 - EIBAR
www.clinicarecalde.com

AÚPA EIBAR



Zatoz pisu pilotua ikustera

Gimnasioa • Gourmet aretoa • Garajea • Trastelekua

NEINOR STORE: Bidebarrieta, n° 6

900 11 00 22 • neinorhomes.com

Eibarko PROFESIO LIBERALAK



ABOKATUAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.

Tel. 943 12 80 55

www.cristinabaz.com

cristinabaz@icagi.net

EGUREN&ASOCIADOS

Urtzaile 1, 2

Tel. 943 20 41 94

Fax. 943 82 00 06

egurenyasociados@gmail.com

AHOLKULARITZAK

GAURVE

Fermin Calbeton 13-15

Tel. 943 20 24 61

www.gaurve.es

consultores@gaurve.es

GESTILAN

Zezenbide 4

Tel. 943 20 70 02

www.gestilan.es

gestilan@gestilan.es

ETXE ADMINISTRAZIOAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.


Tel. 943 12 80 55

www.cristinabaz.com

cristinabaz@icagi.net

Hemen zure lekua
Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

...eta kitto! Euskara Elkarteak urte osoa iraungo duen gizarteratze kanpaina aurkeztu zuen martitzenean Coliseo antzokian. Bertan, kanpainari hasiera emateko spota ikusi ahal izan zen estreinekoz, eta gure YouTubeko kanalean duzue ikusgai.



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarta@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundiak

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eskutitzak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarteak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Hortik esanak



Euskaldunok behar duguna ez da euskararen ofizialtasuna EBn, baizik eta aske izatea bi hizkuntza, euskara eta ingelesa ikasteko. Europari begirada bat ematen badiogu, Madrilgo ume batek bi hizkuntza menperatu behar ditu eta guk hiru? Gaztelaniaz gure seme-alabek egiten dituzten orduak, Madrilgo ume horren gurasoek onartuko al lukete beraien seme-alabek euskaraz egitea? Beraz, desabantaila sakon batean gaude. Modu batean edo bestean ume euskaldun batek, Europako hizkuntza ofizialaz aparte, beste Europako ume baten hizkuntza ikastera behartuta dago. Europan ez dira jaiotzen ume guztiak aske eta berdin? Geureak ez.

BORJA IRIZAR, enpresaburua

Errusiako Nazioarteko Brigadek 36ko gerran zabaldu-tako ohitura ei da pipitak jatekoa. Errepublikazaleen bandoan izan zuen arrakasta, eta kontua da amaitu zela 36ko gerra, eta erroto eta bertan gelditu zela ekilore haziak horrela kontsumitzeko ohitura. Eta oraindik ere irauten duela gurean; Errusian, aldiz, ia galdu egin da. Gaur egun Euskal Herrian kontsumitzen diren pipiten negozioan ari garen enpresa guztiak Txinatik ari gara ekilore haziak inportatzen. AEBetatik ere ekartzen genuen lehen, baina aspalditik ez dugu handik inportatzen. Pipitak nutritiboki oso onuragarriak dira, eta azalarekin jatea askoz hobea.

DAVID SUBIRAN, Plis Plas enpresa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

OTSUARI BE EZ OPA → Gauza bat oso txarra edo beldurgarria dela adierazteko. "Otsuari be opa ez jakon gaua izan dot bart".

1969

Fernando Espejo udaltzainburua

Plazaolaren argazkian, orduko Udaltzainen burua zen Fernando Espejo azaltzen da, Cleto Unceta kazetariaren parean jarrita, haren galderei erantzuten. Bigarren honek *Hierro* eta *Norte Express* arratsaldez kaleratzen ziren egunkarietarako kronikak idazten zituen.



Farmaziak

BARIXAKUA 23
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)
ZAPATUA 24
EGUNEZ Morgado (San Agustín, 3)
DOMEKA 25
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 26
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
MARTITZENA 27
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
EGUAZTENA 28
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
EGUENA 29
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)
BARIXAKUA 1
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI, 2024an,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Jabier Pesquera Arana.** 78 urte. 2024-02-15.
- **Javier Berasategi Campos.** 79 urte. 2024-02-15.
- **Begoña Etxaide Zenarruzabeitia.** 86 urte. 2024-02-16.
- **Rosa Cid Cid.** 90 urte. 2024-02-16.
- **Jose Luis Sanchez Fernandez.** 74 urte. 2024-02-17.
- **Tere Ajuria Etxebarria.** 86 urte. 2024-02-17.
- **Maria Pilar Martija Seguroola.** 70 urte. 2024-02-19.
- **Marialui Aranzabal Bustinduy.** 87 urte. 2024-02-20.
- **Juan Mari Eraso Arrieta.** 75 urte. 2024-02-20.

Jaiotakoak

- **Rimas Hihoud.** 2024-02-11.
- **Greychel Oriana Insausti Lasso.** 2024-02-17.



Eibarko industria-enpresa ertain eta txikientzat topaketa egingo da eguenean

Udalak, Margube Aholkularitzako eta Formakuntzako enpresarekin batera, *Jasangarritasuna Eibarko enpresa txiki eta ertainen lehiakortasun-faktore. Kasu praktikoak eta aukerak* topaketa antolatu du otsailaren 29rako. Errebal Plazan (A aretoan) egingo da, 11:00etatik 13:30era, eta ETEen jasangarritasunarekin eta lehiakortasunarekin lotutako lau zatitan egongo da banatuta. Lehen zatian, Eibarko Industrien Ekosarea programa emango da ezagutzera, eta lortuta-

ko emaitzak eta ondorioak partekatuko dira. Bigarrenean, enpresak jasangarritasunaren arloan izaten dituzten erroka eta aukera nagusiak azalduko dira. Hirugarren zatian, alor horretan hainbat euskal entitatek ETEei eskaintzen dizkieten dirulaguntzak eta bestelako baliabideak aurkeztuko dira.

Informazio gehiagorako edo izena emateko, www.eibarkoindustrienekosarea.eus webgunera jo edo 943 202 818 telefono zenbakira deitu daiteke.

Udalbatzak aho batez onartu du Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan berria

Udalbatzak urtarrilaren 29an egindako bileran aho batez onartu zuen Eibarko Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan berria. 2027. urtera arte egongo da indarrean plan hori. Azaldu dutenez, “Udalek bi plan izaten dituzte hizkuntza-normalizazioaren arloan, herrian euskara sustatzeko plana eta udal-administrazioan garatzen den hizkuntza-politika

jasotzen duena. Barne-erabilera begirako plana da orain onartu dena”. Herritarren hizkuntza-eskubideak udalarekin dituzten harremanetan bermatzea, euskara ere zerbitzu- eta lan-hizkuntza izatea, eta herritarren artean eta Eibarko elkarte, enpresa eta erakundeetan euskararen erabilera sustatzea eta erraztea dira helburu nagusiak.

Aste honetan hasiko dira bidegorriko komun publikoak eraikitzen

Eibarko Udalak 2.118.662 eurotan adjudikatu dio Construcciones Artzamendi SA enpresari Torrekuako eraikinaren eta jubilatutako etxearen birgaitze energetikoa. Kontratua burutzeko epea, berriz, 60 astekoa izango da. Atzo egindako prentsaurrekoan azaldu zutenenez, enpresa horrek lortu zuen puntuazio handiena lehiaketa publikoan. Proiektu horrek Europar Batasunaren eta Espainiako Gobernuaren Next Generation funtsen finantziazioa du. Bestalde, Meatzalde Instalaciones SL enpresak egingo ditu Eibar-Elgoibar bidegorrian komun publikoak eraikitze lanak. Obrak aste honetan bertan hasiko dira, eta 91.960 euroko inbertsioa izango dute. Gauzatzeko epea zortzi astekoa da.



'Cinco lobitos' filmari buruzko zine-forum saioa

Pagatxa emakume taldearen eskutik, otsailaren 1ean izango da hurrengo zine-forum emanaldia, Portaleko areto nagusian, 18:30etik aurrera. Alauda Ruiz de Azua zuzendariaren *Cinco lobitos* filma ikusi eta, jarraian, solasaldia hasiko da, Izaskun Rodríguez Elkorok dinamizatuta. Saio hau Martxoaren 8ko gitarauaren barruan dago.



Udaleko Errenta eta Diru-bilketa zerbitzuen jakinarazpenak modu elektronikoa baino ez

Apirilaren 1etik aurrera, Udaleko Errenta eta Diru-bilketa zerbitzuek (ez du barne hartzen isunen zerbitzua) modu elektronikoa soilik erabiltzeko aukera emango dute. Horrela, Udalak abisua eman du interesdunak emandako helbide elektronikora, aditzera emanez egoitza elektronikoa jakinarazpen bat eskuragarri duela. Horrelako abisuak jaso nahi dituztenek martxoaren 15era arte Udalaren webgunean eskuragarri egongo den formulario bat bete beharko dute.

Txosnaguneari buruz Udalak hedabideetan esandakoari erantzun dio JHH taldeak

Aurreko asteko alean txosnaguneari buruz argitaratu genuen informazioaren harira, Jaixak Herrixak Herrixandakok “azken hilabeteotan gai honen inguruan Udalarekin izandako gorabeherak” azaldu nahi ditu, “hedabideetan irakurri behar izan ditugun gezur hauen aurrean” hainbat puntu argi lagatzeko. Erredakziora bidalitako idatziaren arabera, “iazko Sanjuanean ostean, bertan egin berri diren obren ondorioz, txosnagunea bertatik mugitzeko beharra adierazi ziguten udal ordezkariak, espazio horretan egindako aldaketek ez baitzuten baimentzen bertan txosnagunea modu egokian kokatzea”. Hori jakin eta, berehala, alternatiba bila hasi ziren, “eta 2023ko azaroaren 22an erregistratu genuen lehen aldiz txosnagunea kokatzeko egiten genuen proposamen

dokumentua”. Harrezkero behin eta berriz udal ordezkariekin bitzen ahalegindu arren, otsailaren hasierara arte ez dutela lortu gogor kritikatu nahi dute. Gainera, lehen bilera horretan beste bi proposamen aurkeztu zituen Udalak, “gure proposamenen inguruko azalpenik eman gabe”. El Corte Ingles parean edo, bestela, betiko tokian ipintzea proposatu zieten, baina baloratu eta gero, pisuzko arazoak tartean, ez dituzte bideragarri ikusten. Bigarren proposamenaren arabera, bi txosna gutxiago jartzeko tokia legoke, eta ezingo litzateke programazio kulturala orain arte bezala garatu. Harrezkero egindako bi bileretan Udalaren aldetik interes falta argia ikusi dutela salatu dute. Gauzak horrela, gaiari merezi duen garrantzia ematea eskatzen diote Udalari.

LORA ETA LANDARE
NATURAL ETA
LEHORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK

Enkarguak etxera

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

tartak
enkarguak
etxera

Bidebarrieta, 28
943 20 79 73



Ikusmin handia sortu du 'Cuerpo escombro' pelikularen grabazioak

Aste honetan aldi baterako platu bilakatu da Untzaga, Curro Velazquezek zuzentzen duen *Cuerpo escombro* pelikularen grabazio-lanak tarteko. Morena Films ekoiztetxearen pelikula Bilbon grabatzen ibili dira azken asteotan, eta astebete besterik ez zaie falta grabaketa lanekin amaitzeko. Film

honetan aktore oso ezagunek hartzen dute parte: Dani Rovira, Ernesto Sevilla, 'El Langui', Antonio Resines, Cassandra Ciangherotti, Omar Chaparro, Tito Valverde eta Leo Harlem, besteak beste. Hori dela eta, grabatzen aritu diren bitartean jende ugari pilatu da Untzaga inguruan.



Arragueta kaleko obra-hondakinak garbitzen hasi dira aste honetan

Aste honetan hasi dira Arragueta kalean 17. eta 19. zenbakiak eraitsi eta gero pilatutako obra-hondakinak garbitzen. Eraikinak abuztuan bota zituzten, baina, orubearen jabeen arteko desadostasunak tartean, azkenean bide subsidiarioari jarraitu dio Udalak, garbiketa-lanek eragindako gastua bere gain hartuta.



Armen salmentarekin amaitzea eskatuko dute domekako manifestazioan

Eibar Palestinarekin eta Eibarko Gerrarik Ez taldeek antolatuta, domekan manifestazioa egingo da Eibarren, 13:00ean Untzagan.



Presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea

Etxera elkarteak deituta, euskal presoen eskubideak errespetatzeko eskaera egingo dute gaur, Untzagan, 19:30etik aurrera, hilero azken barixakuan egin ohi den elkarretaratzean.



Eibarko txikienei laguntzeko kanpaina arrakastatsua

La Salle ikastetxeko LH 1. mailakoei kanpaina solidarioa antolatu dute, Eibarko txikienei laguntzeko. Asmo horrekin, ume txikienezako gauzak (pardelak, toallitak, esne-hautsa, gela, papilak, potitoak, talko-hautsak eta gorputz-krema) biltzen ibili dira eskolan, eta aurreko astean Gurutze Gorrian egon ziren, jasotako material guztia entregatzen. Ikastetxetik azaldu digutenez, “kanpaina oso arrakastatsua izan da, eta Eibarko 44 familiari lagundu ahal izan diegu”.



Neguko aukeren azoka egingo dute eguaztenetik barixakura Errebalen

Eibar Merkataritza Gune Irekiak (EMGI) Udalarekin elkarlanean antolatutako neguko merkealdi azoka hiru egunetan, eguaztenetik barixakura bitartean egingo da, 26 establezimenduren parte-hartzearekin: 17 dendarik Errebal Plazan ipiniko dute salmenta-postua, eta beste bederatzi merkatariek dendan bertan egingo dituzte eskaintza bereziak. Hiru egunetan 10:00etatik 20:00etara zabalduko dute. Era berean, factoringean parte hartzen duten estable-

zimenduetan erosketak egitean, anbulatorioko parkean dagoen karruselerako bonuak emango dira, bidaia bakoitzeko %50eko deskontua aplikatzeko.

Pintxo-potea eta zuzeneko musika

Eta aurten, berrikuntza modura, barixakuan 18:00etatik 20:00etara, Trinkete tabernak zerbitzatutako pintxo-potea egingo da Errebalen bertan, Sofia eta Ander talde akustikoaren zuzeneko musika-rekin girotua.

EIBARKO HIZKUNTZA ESKUBIDEEN ATARIA





Telefonoz deitu dut udaletxera. Hartu didanak euskaraz agurtu nau, baina gero gaztelaniaz jarraitu du

Zer egingo dut?

Bidali ASTINDU kanalera!
Oso erraza da:



Deitu: 943 708426
Idatzi: eibarenakebai@gmail.com
Bete webguneko formularioa
Idatzi WhatsApp: 688 69 85 66



Zaintza, oinarrizko balio soziala

Eibarko Martxoaren 8ko lantaldeak (Arrate Kultur Elkartea, SD Eibar Fundazioa, Eibarren Akebai, Neledantza, Kaxa Mugimendu eta Sormen Gunea, Pagatxa, Berdintasun Zerbitzua-Andretxea, ...eta kitto! Euskara Elkartea eta hainbat norbanako) prest dauka Emakumearen Nazioarteko Egunerako egitaraua, martxoan burutuko diren jarduera ugarirekin. Lantalde honek urtero gai bat adosten du, egitarauaren ardatz bezala, eta aurtengoa, Zaintzak, ikuspegi feministatik izango da.

BIDEOA



Martxoaren 8ko lantaldea orain dela zazpi urte sortu zen, eta oraindik ere eraikuntza prozesuan dago. Orain arte lantalde honen eginkizuna martxoaren 8ko egitaraua kolektiboki antolatzea izan da.

Lantaldetik azaldu dutenez, "gure helburu nagusia da, egun horren bueltan, emakumeen aukera eta eskubide berdintasuna eta feminismoa aintzat hartzea eta aitortzea Eibarren, modu eta jarduera ezberdinen bidez, dagoen diskriminazio egoera eraldatzeko. Lantaldeak urtero gai bat adosten du egitarauaren ardatz bezala, eta aurtengoa, Zaintzak, ikuspegi feministatik izango da".

Zaintza-lanak honela defini dezke: "Bizitza eta osasuna mantentzeko egiten diren jarduerak, historikoki ikusezin bihurtuak, etxeko eremuera baztertuak eta emakumei esleituak", diote.

Zaintzak izan dira, eta dira, pentsamendu eta ekintza feministen hainbat korrontetan aztertzeko eta eztabaidatzeko gai nagusietako bat, eta honako gai hauek hartzen ditu barnean: etxeko langileen eta zaintzen lan-baldintzak; lurraren zaintza, ikuspegi ekofeministik; zain-

tza aukeraketa gisa, eta ez betebeharrak gisa; amatasuna ulertzeko modua; nor bere burua zaintzearen garrantzia, erantzunkidetasuna, hau da, zaintzen banaketa ekitatiboa eta zilegia gizarte-eragileen artean (estatua, merkatua, gizonak, komunitatea); zaintzen merkantilizazioa...

Denon bizitzak erdigunean

Feminismoek urteak daramatzate aldarrikatzen bizitza duinen iraunkortasuna erdigunean jarri behar dela eta zaurgarritasuna giza ezaurgarritzat hartu behar dela, zaintzak interdependentziaz, elkar laguntziaz, elkartasunetik eta elkarrekotasunetik ulertu behar direla eta zaintza oinarritzko balio soziala izan behar dela.

"Egingo diren jardueren bidez, hausnartzera, elkar-ikastera eta zaintzarekin lotutako pentsamenduak, egoerak eta emozioak, besteak beste, partekatzea gonbidatzen zaituztegu", diote lantaldetik.

Egitarau zabala martxoan zehar

Martxoaren 1ean emango zaio hasiera aurtengo egitarauari Pagatxa emakume taldeak antolatutako "Cinco lobitos" filmari buruzko zine-forum feministarekin. Mar-



M8ko lantaldeak aste honetan aurkeztu du aurtengo egitaraua . SILBIA HERNANDEZ

txoaren 6an, Irati Mogollón Garciak "Arquitecturas del cuidado" liburua aurkeztuko du. Hurrengo egunean, martxoaren 7an, Dorleta Kortazarrek helduentzako ipuin-kontaketa saioa eskainiko du: "80 amandreak"

Martxoaren 8an, "Norbera zaindu, elkar zaindu" Zumbatoi Morea egingo da Errebal Plazan NELEDANTZA eta ND11 taldeekin. Eta martxoaren 10ean "Zer da zaintza?" dantza performance eta mural kolektiboa hartuko du Untzaga plazak KAXA Mugimendu eta Sormen Gunearekin. Martxoaren 11n June Baonza Pagaldairen "Ama ta Asunak" dokumentala eskainiko da Andretxean eta hurrengo egunean erakusketa zabalduko dute.

Martxoaren 13an Miren Arangurenen "Ez dadin bizitza eten" liburua aurkeztuko da, eta 18an "La abuela Margarita" bideo-forumaren txanda izango da. Martxoaren 19an eta 20an antzerkiarentzako tartea egongo da, "El Patio de las Moreras-Masustondoen Patioa" lanarekin.

Zaintzak denon bizitzak erdigunean

MARTXOAK 8 LANTALDEA 2024

OSTIRALA 1, viernes [CAS]

Zine Foruma eta solasaldia Cine Forum y charla
Cinco Labitos
📍 Puzos Arta Nagusia
🕒 18:30

ASTEAZKENA 6, miércoles [RUS]

Liburu aurkezpena eta hitzaldia Presentación de libro y charla
Arquitecturas del cuidado - Irati Mogollón García (SETEM)
Sarrera irakurlea / Como introducción
Poesía erraztuta Recital de poesía
📍 Andretxea
🕒 18:30 "Hurrengoaren zaintza zerbitzuaren egongo da"

OSTEGUNA 7, jueves [RUS]

Helduentzako ipuin kontaketa Cuente cuentos, adultos
80 amandreak - Dorleta Kortazar Añaz
📍 Andretxea
🕒 18:30 "Hurrengoaren zaintza zerbitzuaren egongo da"

OSTIRALA 8, viernes

Martxoaren 8ko mobilizazioekin bat
Adhesión a las movilizaciones

LARUNBATA 9, sábado

Zumbatoi Morea Zumbatón
Norbera zaindu, elkar zaindu, bestiek zaintzeko
NELEDANTZA eta ND21
📍 Errebal
🕒 10:00-12:30

IGANDEA 10, domingo

Dantza performance eta mural kolektiboa
Zer da zaintza?
KAXA
📍 Untzaga
🕒 12:00-12:30



ASTELEHENA 11, lunes [RUS]

Erakusketa, dokumentala, solasaldia
Exposición, documental, charla
Ama ta Asunak - June Baonza Pagaldai
Erakusketa - Exposición
2024-3 Ota 2024-4-16
📍 Andretxea
🕒 18:30 "Hurrengoaren zaintza zerbitzuaren egongo da"

ASTEAZKENA 13, miércoles [RUS]

Liburu aurkezpena Presentación libro
Ez dadin bizitza eten - Miren Aranguren Etxarte
📍 Andretxea
🕒 18:30 "Hurrengoaren zaintza zerbitzuaren egongo da"

ASTELEHENA 18, lunes [CAS]

Zine Foruma eta solasaldia Cine Forum y charla
La abuela Margarita
Dokumentala Puzos Puzos Cine
📍 Andretxea
🕒 18:30

ASTEARTEA 19, martes [CAS]

Antzerkiarena - Obra de teatro
El Patio de las moreras
📍 Calles antzekak
🕒 19:00

ASTEAZKENA 20, miércoles [RUS]

Antzerkiarena - Obra de teatro
Masustondoen patioa
📍 Calles antzekak
🕒 19:00

ANTOLATZAILAK



Kolaboratzaileak





ARRATE GARITAONANDIA

Prozesu obsesiboa

“Obsesionatzen ari naizela uste dut”, ziurrenik guk inoiz esan dugun edo beste pertsona bati entzun diogun esaldia da.

Obsesioa pertsona bakarrik sentitzen denean edo/eta bakardade sasoietan agertzen da. Bakardade-sentsazioak eszenatokia errazten du fantasia errepikakorrek, beldurrak, oroitzapenak eta amaitu gabeko egoerak birsortu daitezten, egiteke edo amaitu gabe dagoen zerbitu konpontzeko ahaleginean.

Pentsamendu obsesiboak erlazio falta baten ondorio dira. Paradoxikoa da pentsamendu horietako edukien protagonista funtzionatzen ez duen harremana izaten dela: gure buruan norekin borrokatzen garen, norengandik defendatzen garen, norekin hitz egiten saiatzen garen... Ezaugarri nagusia da harremanak funtziona dezan saiatzen garela etsi-etsian.

Prozesu obsesiboa martxan jartzen den bitartean, geure buruarengan zentratuegi gaude eta ezin ditugu besteekin harreman onak izan. Norbaitekin egon, baina bere konpainiarekin ezin gozatzea bezalakoa da. Une horretan, obsesioa “lagun ikusezin” bihur daiteke. Energia asko kontsumitzen duen eta hemen eta orain bizitzea eragozten duen laguna.

Obsesionatzeko joera duenak espontaneoak izateko eta orainaz eta intimitateaz gozatzeko gaitasuna galtzen du. Bromatan aritzeko eta erlaxatzeko arazoak ditu. Oro har, pertsona zerebralagoak dira, eta perfekzionistak izateko joera dute. Arlo intelektualean erosoago sentitzen dira emozioak sentitzen baino, agobiatuta, gaindituta eta kontrolik gabe sentitzeko beldurra izaten dutelako. Pentsatzea ez sentitzeko estrategia bihurtzen da.

Obsesioa tratatu eta sendatzeko, obsesioak dituen esanahiak eta funtzioak eta obsesionatzean saihesten duguna xehetasunez jakri behar da. Zer saihesten ari naizen pentsatzea, zer saihesten ari naizen egitea, zer gertatuko litzatekeen energia beste nonbait banu. Obsesio prozesu batean murgilduta dagoen norbaiti ez obsesionatzeko esatea ezinezko bat eskatzea da. Lagundu egin behar zaio, bere barne-esperientzia xehetasunez ezagutu eta bere fantasien esanahiak argitzeko bezain segurua den harreman bat eraiki.

“Prozesu obsesiboa martxan jartzen den bitartean, geure buruarengan zentratuegi gaude eta ezin ditugu besteekin harreman onak izan”

"BERRERABILU ETA BERRASMATU" TAILERRAK 2024. URTEA

Izena emateko epea: martxoak 1 - martxoak 14

+ KATALOGOA





NOLA

LAGUNDU IKAZAEGI

SORTZEN DITUGUN HONDAKINAK MURRIZTEN?

KONPONDU, BERRERABILU, BIRZIKLATU ETA BERRASMATU

- Adinez nagusiak. Gehienez 3 tailer pertsonako.
- Pidora edo <https://formularioak.eibar.eus/eu/berrerabilitetaberrasmatu2024-01>
- Onartuen zerrenda argitaratzeko eguna: martxoak 18
- Onartuak matrikula formalizatzeke epea: martxoak 19 - apirilak 8
- Matrikula-inprimakia udalaren webgunean eskuragarri
- Matrikula Pidorako postontzian utzi (egunero, 7:30 - 21:30)

	Prezioa	
• IKASI ZURE ORDENAGAILUKO HARWARD-A EGUNERATZEN ETA KONPONKETA TXIKIAK EGITEN: apirilak 17 eta 24, maiatzak 8 eta 15 / 17:30 - 19:30; Azitain OLHUI - IMFPB / Gaztelania	11 €	
• KOADERNATZE SORTZAILEA; apirilak 20 / 11:00 - 13:00; Eskuutxo / Euskara	9 €	
• BRIKOLAJE TRESNAK ERABILTZEN IKASI: apirilak 23 eta 30, maiatzak 7 eta 14 / 17:30 - 19:30; Azitain OLHUI - IMFPB / Elebiduna	11 €	
• BIZIBERRITU ZURE ALTZARU ETA DEKORAZIO OBJEKTUAK: apirilak 27 eta maiatzak 4 / 10:30 - 13:30; El Taller de Manualidades / Gaztelania	Eibarren errolatuta: 8 €	Eibarren errolatuta ez dardanak: 16 €
• APROBETXAMENDUKO SUKALDARITZA- SASOIKO BAKAZKIAK; maiatzak 9 / 18:00 - 20:00; Portaleko sukaldia / Elebiduna	6 €	
• KATU TXOKO; maiatzak 11 / 11:00 - 13:00; Adarabar / Euskara	7 €	
• IKASI ZURE BIZIKLETA KONPONTZEN; maiatzak 16 / 18:00 - 20:00; Errebal plazia / Elebiduna	8 €	
• MAKINAZ NOLA JOSE HASIBERKENTZAKO JOSKINTZA; maiatzak 18 / Bi txanda: 16:00 - 18:00 eta 18:00 - 20:00; Harizan / Euskara (16:00-18:00) eta gaztelania (18:00-20:00)	8 €	
• ETXEKO OINARRIZKO KONPONKETAK: ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA; maiatzak 21, 23, 28 eta 30, ekainak 4 eta 6 / 17:30 - 19:30; Azitain OLHUI - IMFPB / Gaztelania	Eibarren errolatuta: 8 €	Eibarren errolatuta ez dardanak: 16 €
• SORTU ZURE DEKORAZIO-GIRLANDAK; maiatzak 25 / 11:00 - 13:00; Zorionak Luloteka / Euskara / Haurrak zaintzeko aukerako zerbitzua (4-10 urte bitartekoak eta gehienez bi haur)	8 €	



zuhaitz eguna

Eibarren

2

Goizeko 09:30ean Urkoko igorako aparkalekuan, Ixuan

bertako zuhaitzak landatzea

Izena ematea beharrezkoa Otsailaren 29a baino lehen Plaza mugatuak



ANTOLATZAILEAK





info@lurgaila.org

Adierazi parte-hartzaileen izen-abizenak, adina eta telefono bat (ezustekoetarako bakarrik)

ek!

Zure publizitatea herriko aldizkarian

688 621 535

publizitatea@etakitto.eus

PUBLI RESA

objeto publicitario

merchandising

serigrafia

lanerako erropa

www.publiresa.com

publiresa@publiresa.com

943 701 497 / 615 799 419

Armagin, 3-5 behea

Hamar urte panderoa mugitzen

Ezin dugu erromerian pentsatu Mugi Panderoa taldea burura etorri barik. Eibartarrek hamar urte bete dituzte eszenatoki gainean eta gozamenarako momentu ugari eskaini dizkigute urte hauetan zehar. Asmo handirik gabe sortutako taldeak hamarkada osoa darama Euskal Herriko hainbat herritako jaiak girotzen eta euren musikarekin panderoa mugiarazi die milaka laguni.

Batzuetan ez da asmo handirik behar gauza handi bat sortzeko, eta hori da, hain zuzen ere, Mugi Panderoa taldeari gertatu zaiona. Miren Gisasola da taldearen sortzaileetako bat eta bere berbetan honakoa izan zen taldearen hasiera: “2014ko Sanjuanetan, txosnaguneko egitarauaren zati bat betetze aldera, zerbait egitea pentsatu genuen. Karaokearen ondoren hutsunea zegoen egitarauan eta neure gain hartu nuen zerbait prestatzeko ardura. Orduan, hiru lagun lotu nituen eta ordubeteko emanaldia eskaini genuen. Printzipioz hori izan zen asmoa, une bateko zerbait egitea, eta honaino iritsi gara”.

Eta zein izan da gaur egunera arte martxa betean heltzeko arrazoa? “Larregi gustatzen zaigu egiten duguna. Bizioa dugu”, Mirenek dioenez. “Sanjuanetako saio horretan gustora egon ginen eta erantzuna oso ona izan zen. Hurrengo urtean errepikatu egin genuen eta, poli-



ki-poliki, helbururik gabe, jarraitu egin dugu”.

Lau lagunek osatu zuten Mugi Panderoa bere jatorrian, eta panderoa eta soinua zituzten lagun, besterik ez. “Irati, Haizea eta ni neu aritu behar ginen lehen saio horretan, baina Sanjuanak pixka bat konplikatu ziren eta ahotsa ez genuen oso ondo. Beraz, Eneritzi deitu nion gau horretan bertan gurekin abestera gonbidatuz, eta horrela osatu genuen laukotea”, azaldu digu Mirenek.

Nahiko gauza inprobisatua izan zen, baina taldekideek bazuten eskarmentua trikipoteoetan eta kalejiretan. “Oso ohituta geunden hirurok elkarrekin jotzera eta baguenen prestatuta abesti kopuru bat. Orduan, entsegu batzuk egin genituen ordena bat jarraitzeko”, diosku taldeko abeslariak.

Klasikotik modernora

Hasierako Mugi Panderoa pixka bat klasikoa zela esan digu Julen Barto-



Mugi Panderoa taldekoek publikoaren babes osoa jaso dute hamar urte hauetan eskainitako kontzertuetan. MUGI PANDEROA

lome soinu-joleak, “eta gero modernizatzen joan gara”. Taldeak bi urte bete zituenean sartu zen Julen eta poliki-poliki musika tresna berriak hasi ziren taldean sartzen: perkusioa, tronboia, gitarra, eta abar. “Ez dakit musika-tresnak zentzu askorekin sartzen joan ginen...”, hausnartzen du Mirenek. “Ez”, berresten du barrez Julenek. “Soinua eta panderoa genituen, Alaitz Almorzak tronboia jotzen zuen eta taldean sartu zen, gero Andoni Lopez baxuarekin, bateria, gitarra, tronpetta... Hiru-lau urtetan jendea sartu zen eta gaur egun dugun egituraren antzekoa osatu genuen”, Mirenek kontatu digunez.

Taldekideek argi zuten gaur egungo erromerien kontzeptua ez dela orain dela 40 urtekoen berbera. Beraz, modernizatzeko hautua egin zuten eta hortik etorri ziren musika-tresna berriak. “Gainera, abesti batzuek, soinuaz eta panderoaz aparte, beste musika-tresna batzuk erabil-

>>> 2014an hasi zuen bere ibilbidea Mugi Panderoa erromeria taldeak, Sanjuanetako txosnaguneko egitarauaren hutsune bat betetzeko

>>> Panderoarekin eta soinuarekin hasi baziren ere, gaur egun hainbat musika-tresna jotzen dituzte taldekideek

tzea eskatzen zuten”, Mirenen ustez. “Gauza gehiago egin nahi horretan, gauzak ondo egin nahi dituzu eta, ondo egiteko, denetarik behar duzu”.

Modernizatzeko bidean, musika-tresna berriak gehitu zituzten, baina ia ez zuten entseatzeko tokirik. “Markel Corral bateria-joleak eta Andonik Legarreko lokaletan entseatzeko zuten beste talde ba-

tzuekin. Orduan, eurekin elkartzen hasi ginen. Izan ere, hasieran Musika Eskolan entseatzeko zuten, soinua eta panderoa besterik ez genituelako jotzen”, kontatu digu Julenek. “Musika Eskolara ikastera joaten ginen orduak aprobetxatzen genituen abestiak erreparatzeko, baina beste musika-tresnarik ez genuen bertan”, Mirenek dioenez.



Euskal Herri osoan zehar eskaini dituzte kontzertuak. MUGI PANDEROA

>>> Aldaketak egon dira taldekideen artean, baina taldea nahiko egonkor mantendu da urte hauetan zehar

>>> Betiko errepertorioari abesti berriak gehitzen saiatzen dira urtetik urtera, sasoian sasoikora egokituz

Legarreko lokaletan hasi ziren profesionalizatzen, kontzertuak gehiago prestatzen eta beste helburu batzuk jartzen. “Ondo pasatu bai, baina gauzak txukun egitea nahi genuen, ez edozer gauza”, abeslariaren berbetan. “Beno, oraindik horretan gabiltza”, diosku soinu-joleak barrez.

Ehundaka kontzertu

Bide horrekin bete-betean asmatu zuten Mugi Panderoa taldekoek, harrezkero ehundaka kontzertu eskaini baitituzte Euskal Herri osoan zehar. Baina nola moldatu ziren hasieran? “Ahoz ahokoak ondo funtzionatu zuten. Inguruko herrietan hasi ginen, egiten genuena ahoz aho

zabaltzen joan zelako, eta gero, sare sozialei esker, kanpoko dei gehiago jasotzen hasi ginen”, dio Mirenek.

Urte hauetan kontzertu asko izan dira bereziak, baina, baten bat aukeratzekotan, honakoarekin geratzen da abeslaria: “2015ean Sanjuanetako txosnagunean eskaini genuena. Kamisetak egin genituen eta publikoan jende asko ikusten zen gure kamisetekin. Lehen urteurrena izan zen eta jendeak oso ondo erantzun zuen. Dena dela, azken urteotan Eibarren emandako kontzertuak ere oso onak izan dira. Iaz Arrateko Jaietan eskaini genuena zoragarria izan zen. Plaza beteta ikusten genuen, adin guztietako jendea bildu zen eta amaierara arte egon ziren bertan dantzan”. Baina ahazteko moduko kontzerturen bat egongo zen, ezta? “Asko”, diote barrez. “Esperientzia horietatik asko ikasten dugu, berriz ere ez errepikatzeko”.

Orain, hamar urteko esperientziarekin, musikari moduan hazteaz

gain, indarrak neurtzen ikasi dute eta kontzertuak aukeratzeko orduan tentuz ibiltzen dira. “Adibidez, lehen goizeko 03:00etan joan ahal ginen kontzertu bat eskaintzera, eta gaur egun ez zaigu burutik ere pasatzen”, diosku Julenek. “Ez gara joaten edozein lekutara edozein modutan. Minimo batzuk behar ditugu”, berresten digu Mirenek.

Abeslariaren ustez, “jaietan erromeria jarrita, antolatzaileek bete-betean asmatzen dute. Izan ere, erromeriak musika-estilo ezberdinen esparru zabala hartzen du eta adin-tarte zabala biltzen da erromerietan. Badakizu 50 abestitik gutxienez bat, bi edo hiru zure gustokoak izango direla”.

Mugi Panderoak 100 abestitik gorako erreperorioa du eta urtero saiatsen dira hamar abesti berri sartzen, sasoiari sasoikoa eskaintzeko. “Betikoari eusten diogu, ez dugu ahaztu nahi nondik gatozen, baina gazteenei gustoko gauzak eskaini nahi dizkiegu”, diosku Mirenek. “Erromeria talde batzuk klasikoagoak dira, beste batzuk modernoagoak, eta gu erdibidean gaudela uste dut”. Gainera, tokian tokiko abestiak eskaintzen saiatsen dira.

Iaz 45 kontzertu eskaini zituzten, eta aurten antzeko bidetik joango direla dirudi. “Urte amaieran elkar-tzen gara urteko balorazioa egiteko eta hurrengo urtea prestatzeko, eta berdin gozatzen jarraitu nahi dugu aurten ere”, azaldu digute.

Hamar urte pasa dira taldearentzat, baina baita taldekideentzat



Laukote bezala hasi zuen ibilbidea Mugi Panderoak. MUGI PANDEROA

ere. Dena dela, horrek ez du euren sua itzali. Gaur egun zazpi lagunek osatzen dute taldea eta, urte berezia izanik, gehiago gozatzen jarraitu nahi dute. “10. urteurrena ospatzeko, ondo legoke ekainaren 24an, urteurrena betetzen dugun egunean, Eibarren jotzeko aukera izatea. Horrela bada, ea zerbait berezia prestatzen dugun”, aurreratu digute.

BIDEOAK



“Hizkuntza batetik bestera pasatzea ez da erraza, baina uste dut buruko toki batean gordetzen zaigula testua”

MIREIA GABILONDO • Aktorea



‘Esnearen kolorekoa’ izeneko antzezlanaren emango dute hilaren 27an Antzerki Jardunaldietan. Bertan Maryren istorioa kontatzen da, 1830. urte ingurukoa. Baserritar familia analfabeto baten alaba erren eta albinoa da bera, eta bikarioaren etxera bidaltzen du jipoiak ematen dizkion aitak. Irakurtzen eta idazten jakitea da Maryren desiorik handiena eta lortzen du, baina baita larrutik ordainduko ere.

Tanttakak goi-mailako aktoreak bildu ditu Nell Leyshonen eleberria taularatzeko. Fernando Bernues zuzendaria arduratu da Leyshonen obra moldatzeaz, eta abenduan estreinatu zuten Bilboko Arriaga antzokian. Mireia Gabilondo aktorea izango dugu, besteak beste, eszenatoki gainean, eta antzezanaren nondik norakoak kontatu dizkigu. Antzezanak 90 minutuko iraupena izango du eta 19:00etan hasiko da. Sarrerak 12 euroko prezioa izango du (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartela dutenentzat) eta hiru modutan eskuratu daitezke: alde zurretik, Coliseo antzokiko leihatilan, astelehen eta barixakuetan, 17:30etik 19:30era; Kutxabank bitartez; edo antzokiko leihatilan, antzezlana hasi baino ordubete lehenago.

Nolako harrera izan du antzezanak?

Antzezlana abenduan Bilboko Arriaga antzokian aurkeztu genuen geroztik zortzi emanaldi inguru eskaini ditugu eta, Eibarrera joan aurretik, asteburuan Donostian egongo gara. Berezia izango da, bertan bizi garelako eta jende gehiago etorriko delako. Antzezanak oso harrera ona eduki du. Jendea oso gustora irten da antzokietatik.

Nolako istorioa kontatzen duzue?

Oso istorio erakargarria da eta sorpresa pixkatxo bat dauka, hasieran tonu bat duelako eta azkenean tragedia bihurtzen delako. Oso pertsonaia interesgarria dugu protagonista bezala: Mary. Uste dut estetiko-ki ere oso antzezan polita dela. Beraz, pozik gaude emaitzarekin eta izan duen harrerarekin. Jendeak oso komentario onak egin dizkigu.

Antzezlana Nell Leyshonen eleberriaren egokitza-pena da. Nola moldatu duzue?

Liburua orain dela sei urte inguru irakurri genuen eta asko gustatu zitzaigun. Fernando Bernues Nell Leyshonekin harremanetan jarri zen eta, bizitzaren kasualitatez, Fernandok Nellen beste obra bat zuzendu zuen Bartzelonan, Teatre Lliuren. Han ezagutu zuten elkar eta liburu honetaz hitz egin zuten. Orduan adostu zuten Fernandok egingo zuela antzerkirako egokitza-pena. Leyshonek antzerkia ere idazten du eta, bere istorioa izanik, ondo ezagutzen zituen pertsonaia guztiak eta argi zuen moldaketa nola egin zitekeen. Era berean, konfiantza osoa erakutsi zuen Fernandok duen zuzentzeko moduan eta oso ondo elkar ulertu dugu elkar. Bilboko estreinaldira etorri zen, oso pozik geratu zen eta baita gu ere.



Aitziber Garmendia (ezkerrean) eta Mireia Gabilondo (eskuinean) 'Esnearen kolorekoa' antzezlanean. TANTAKA

Mary izeneko pertsonaia aipatu duzu, baina goimailako aktore-sorta duzue beste paper batzuk landuz. Zeintzuk?

Aitziber Garmendia dago Maryren azalean. Neska gazte indartsua da, bizitzaz betea, nahiz eta base-ri inguruan bizi, diru askorik eduki ez eta aitaren menpe bizi den. Ez du bizimodu errazik. Hala ere, desio handiak ditu: idazten eta irakurtzen ikastea. Ikuskizunaren amaieran bere desioa lortuko du, baina bidean sufritu egingo du. Amaitzen du esanez, berriz biziko balitz, berdina egingo lukeela. Maryren aitona Jose Ramon Soroizek egiten du. Maryk eta aitona oso harreman estua dute, eta oso istorio polita sortzen dute bien artean. Gainontzeko lau aktoreek bi pertsonaia egiten ditugu bakoitzak. Familia horretako gurasoen eta ahizparen azalean sartzen gara batetik eta, istorioan zehar Mary beste familia batera joaten denez zerbitzari bezala, bikarioaren etxera, bikarioaren familiarena ere egiten dugu. Horrela, Maryren aitarena egiten duen Joseba Apaolaza bikarioa izango da gero, nik Maryren amaren papera egiten dut batetik eta bikarioaren

“Sekretu handi bat egongo balitz, edo ziur arrakasta emango dizun egiteko modu bakar bat, antzerkia banketxeek egingo lukete”

emaztearena ondoren, eta Miren Arrietak Maryren ahizparen papera egiten du lehenik eta bikarioaren etxeko zerbitzari batena gero. Amaitzeko, Jon Olivarres bikarioaren etxeko semea da eta amaieran beste pertsonaia bat egiten du.

Bi pertsonaia egiteaz gain, antzezlanari bi hizkuntzatan egiten duzue, euskaraz eta gazteleraz. Nolako erronka da zuentzat?

Ez dut esango erraza denik, demaseko lana delako. Hasieran, estreinuaren aurreko egun horiek estuagoak izaten dira guztiontzat. Hizkuntza batetik bestera

pasatze hori ez da erraza egiten, baina emanaldiak eskaintzen ditugun neurrian testura egokitzen joaten gara, eta uste dut buruko tokiren batean gordetzen dela eta hortik ekartzen dugula.

Eskarmentu handiko aktoreak zarete eta Tanttakak ere 40 urte inguru daramatza martxan. Aipatutako prozesu horretan, esperientzia hori igartzen da?

Hainbeste urtetan hor egoteak zerbait ikasi dugula erakusten duela uste dut. Hala izatea nahiko nuke behintzat. Gauza asko ikasten dira eta beste gauza asko ditugu ikasteko oraindik. Hurrengo ikuskizun berriarekin hasten garen momentuan berriz etorriko dira beldur guztiak, baina gure lanaren parte dela esango nuke. Horrekin lan egiten eta bizitzen ikasten joan gara eta, zenbat eta urte gehiago egon, gehiago ikasten dugula esango nuke.

Antzerki talde batekin edo beste batekin lan egitean, alde handia egoten da?

Ez dakit, hori aktoreei galdetu beharko zenieke. Nire kasuan enpresakoa naiz, Tanttakakoa. Beste talde batzuekin lan egin izan dut, zuzendari bezala batez ere, eta talde bakoitzak bere ikuspuntua, egiteko modua eta idiosinkrasia du. Dena dela, azkenean, denok nahiko antzera egiten dugu antzerkia: testua edo ikuskizuna aukeratzen duzu (testu gabe ere izan daitekeelako); eta zer kontatu nahi duzun, nola, norekin eta abar erabakitzen duzu; eta pare bat hilabetez entseguak egin ondoren, publikoari aurkezten diozu.

Zein da Tanttakaren sekretua 40 urtez martxan egoteko?

Ez dakit sekreturik dagoen. Askotan esaten dugun bezala, sekretu handi bat egongo balitz, edo ziur arrakasta emango dizun egiteko modu bakar bat, antzerkia banketxeek egingo lukete. Ez dago sekreturik. Sekretu bakarra da mugitzen zaituen hori egitea, erakartzen zaituen gai bat edo bestea lantzea, idatzi-ta dagoen moduagatik testu bat aurrera eramatea, edo gustuko duzun aktoreekin lan egitea. Barrura begiratzea da kontua, norberaren gogoia zein den



“Hurrengo ikuskizun berriarekin hasten garen momentuan berriz etorriko dira beldur guztiak, baina gure lanaren parte da”

eta zerk bizi arazten dizun jakiteko, eta horren bila joateko. Ez dago besterik.

Tanttakak bezala, Eibarko Antzerki Jardunaldiek 40 urtetik gora daramatzate martxan. Nolako harremana duzu Antzerki Jardunaldiekin?

Urte asko daramatzagu Eibarko Antzerki Jardunaldiek eta Tanttakak, eta gure ikuskizun gehienekin joan gara bertara. Oso toki berezia da, publiko jantzia dagoela nabaritzen delako. Antzerkia gustuko duen publikoa da eta antzerkia ikusteko ohitura duena. Horrek poz handia ematen du. Antolatzaileek oso lan polita egiten dutela azpimarratuko nuke.

Urte osoan garatuko den gizarteratze kanpaina aurkeztu du ...eta kitto!-k

Aste honetan, martitzen eguerdian aurkeztu zuen ...eta kitto! Euskara Elkarteak urte osoa iraungo duen gizarteratze kanpaina eta, horrekin batera, elkartearen webgune berria eman zuen ezagutzera. Ekitaldia Coliseo antzokian egin zen, eta bertan Eibarko erakunde, elkarte eta taldeetako ordezkari ugari elkartu ziren. Ekaitz Juaristi Olaizola ...eta kitto! Euskara Elkarteako presidentek batutako guztiei ongi-etorria egin eta eskerrak eman ostean, Maider Aranberri Sarasua elkarteko idazkariak azaldu zituen abiatu berri den kanpainaren nondik norakoak.

zarelakogara

Aurkezpen ekitaldiko bideoa gure YouTube kanalean ikusgai dago



Denboran atzera eginda ekin zitzaion aurkezpen-ekitaldiari, “nondik gaitozen gogoratzea ere garrantzitsua delako. 1992. urtera joango gara. Urte hartan sortu zuen euskaltzale talde batek ...eta kitto! Euskara Elkarteak, Eibarren euskara gutxi entzuten zela-eta, hori aldatzeko ilusio handiarekin. Eta euskaltzale talde haren ilusio eta helburu berari heltzen diogu guk gaur egun ere. Eta hala jarraituko dugu, Eibarren euskaraz bizitzeko amets hura bete dela ikusi arte”.

Elkartearen sorreratik gaur egunera arte egindako bideari errepaso egin zitzaion jarraian: “30 urteko ibilbide luze horretan, gure helburuak betetze aldera, programa, ekintza eta jarduerak ugari pasatu dira elkartetik. Batzuk desagertu

egin dira, beste berri batzuei lekua egiteko. Azken batean, mundua oso azkar ari da aldatzen eta, gizartea aldatzen joan den moduan, elkarteak bera ere aldatzen eta hazten joan da. Sasoi berrietara eta herritarren beharretara egokitzen joan da, eta egokitzen doa, baina bere balioak zeintzuk diren sekula ahaztu barik. Elkarte irekia, herrikoa, eibartarra, berritzailea, feminista eta parekidea izaten jarraitu nahi dugu, beste gauza askoren artean”.

Aste honetan egin den aurkezpen ekitaldian esandakoari jarraituz, 2022. urtean, elkarteak 30 urte betetzen zituela-eta, hausnarketa sakona egin zuten elkartearen kideek, eta hor ikusi zuten elkarteak eta bertatik egiten den lana ez direla nahi bezain ezagunak herrian. Hortik sortu zen gizarteratze kanpaina



martxan ipintzeko ideia. Hasiera-ko asmoa kanpaina iaz abiaraztea izan arren, webgune berria egiteko lanean hasita zeudenez, pixkat itxaron eta gauza biak batera martxan ipintzea erabaki zuten, “besteak beste, webgunea gure kanpainaren zabalkundea egiteko tresna ezin egokiagoa delako”.


Maidar Aranberri elkarteko idazkariaren berbetan, “herriak elkarte hobeto edo gehiago ezagutzea, zer den, bere balioak zeintzuk diren, zer egiten duen eta zertarako argi izatea lortu nahi dugu kanpaina honekin. Eta, horrekin batera, herrita-

Herritarren-sarea elkarrekin egiten jarraitzea eta sendotzea da kanpaina berri honekin lortu nahi den helburua

rrak bazkide egitea, gure balioekin, gure jardunarekin eta gure helburuekin bat egiten dutelako. Modu kontziente batean gurekin bat egin nahi dutelako. Azken batean, babes soziala da lortu nahi duguna”.

Aurkezpenean nabarmendu zenez, “batetik, gure komunitatea handitu nahi dugu, gure ikuspegi eta helburuak partekatzen dituztenak inplikatzuz. Bestetik, nola ez, gaur egungo bazkideak leialtzea ere nahi dugu, eta aitortza egin, eskerrak eman. Eta, azkenik, lankidetzaren sustatzea, lankidetzaren ahalmenean sinesten dugulako, he-

30 urtetik gorako ibilbidean elkartearen bidelagun izandako asko eta asko elkartu ziren aurkezpen ekitaldian



rrian zein eskualdean, norbanakoe-
kin zein kolektiboekin, elkarrekin
lan eginda eraginkorragoak izango
gara-eta. Esandako horrek guztiak
elkartearen ahalduntzea ekarriko
duela pentsatzen dugu”.

Sorrera egunetik gaur arte Eibar-
ko beste elkarte eta taldeek eman-
dako babesa ere nabarmendu nahi
izan zuen Aranberrik: “Elkartearen
ibilbidean eta hazte horretan, bide-
lagun asko izan ditugu, eta gaur ere
baditugu. Zuetariko asko hemen
zaudete gaur, denak ez esateagatik,
eta horrek berak elkarteak handitu
eta aberastu egiten du”.





ZARELAKO GARA. Esaldi hori izango da ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik hasi berri den gizarteratze kanpainaren ardatza, eta horren diseinua eta komunikazio estrategia Arrasateko AZK komunikazio agentziak landu du.

Kanpainari hasiera emateko spota martitzeneko aurkezpen ekitaldian ikusi ahal izan zen estreinekoz, eta bertan eibartar ugarik hartu du parte. Izan ere, herrian eta herriarentzat lan egiten duen elkarte izanik, protagonistak ere eibartarrak izan behar zirela argi izan dute hasieratik euskara elkartean. Bideoan ikusten diren toki guztiak ere, jakina, Eibarren daude, eta irudikatzen diren egoera ezberdinetan ...eta kitto! Euskara Elkartean egunerokotasunean lantzen diren proiektu eta ekimenak islatu nahi izan dira, laburbilduta. Elkartetik eskerrak eman nahi dizkiete grabazioan parte hartu duten eibartarrei: Susana, Ixidro, Andrea eta Edurne berbalagunak eta Mertxe, Eneida, Elene, Joanes, Nara, Manex, Uxue, Lorea, Miren, Gurutz, Niama, Asier, Ainara eta Ainura.

Martitzenean estreinekoz ikusi ahal izan zen kanpainaren spota grabatzeko eibartar askok hartu dute parte, pozik gainera

Zarelako Gara
kanpainaren spota
ikusteko eskaneatu



zarelako gara



Azal berriarekin etorkizun digitalerantz

Astelehenaz geroztik webgune berria du ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Herriko aktualitatea eta euskara elkartearen jarduna jarraitzeko web-orri dinamiko, malgu eta erakargarria da, puntako teknologiarekin egina eta erabiltzaileen beharrak asetzeko garatua, etorkizun digitala eraikiz.

Ezagutu webgune berria



Neurrira egindako webgunea garatu du ...eta kitto! Euskara Elkarteak CodeSyntax enpresa eibartarrekin. “Web-orri berria dinamikoa eta interaktiboa da, Eibarko aktualitatea modu erabilgarriagoan eta argiagoan eskaintzeko, eta Euskara Elkartearen jardueraren informazioa uneoro zabaltzeko”, diote ...eta kitto! Euskara Elkartekoek.

Orain dela hilabete batzuk CodeSyntaxek Plone teknologiarri buruzko mundu mailako konferentzia antolatu zuen herrian, eta orain, teknologia bera erabilia, ...eta kitto!-ren webgunea garatu dute. “Oso pozik gaude emaitzarekin, hasiera hasieratik oso ondo ulertu dugulako elkar”, diote elkartetik. Izan ere, orain arte zuten webgunea txiki geratu zaiela azpimarratzen dute euskara elkartetik, eta goitik behera aldatu nahi izan dute ahalik eta zerbitzu onena emateko.

Webgune berria moldagarria da eta momentuko beharretara egokitzeko gaitasuna ematen du, baina

begi-bistakoa da aldaketa nagusia azala antolatzeko eta bistartzeko moduan dagoela. “Webgunea estetikoki erakargarria izaten saiatu gara”, aipatzen dute ...eta kitto!-koek.

Webgune bizia eta moldagarria

Orain arteko webgunearekin alderatuz, web-orri berrian edukia beste modu batean antolatu nahi izan dute. Bertan, aktualitateari lotutako albisteak, bideoak eta argazkiak, eta elkartearen proiektuak eta zerbitzuak nabarmentzen dira. “Gainera, argazkiak eta ikus-entzunezkoak ikusarazteko teknologia hobetu egin da. Eta horrela, hori gutzia kontuan hartuta, nabigazioa eta funtsezko informazioa eskuratzeari erraztu nahi izan dugu”, diote elkartetik. “Gainera, edukiak kudeatzeko sistema hobetu da eta webgunearen egitura malguagoa izaten saiatu gara. Horrela, une berezietan edukiak nabarmendu ahal izateko, azken ordukoak argitaratu ahal izateko, atal bereziak sortzeko,



Erabilgarritasunaz gain, sinpletasunaren eta argitasunaren aldeko apustua egin du ...eta kitto! Euskara Elkartek.

eta beste hainbat gauza egiteko aukera ematen digu”, gehitzen dute.

Web-orriak erabiltzaileen eta ...eta kitto! Euskara Elkartearen arteko lotura estutuko du, bien arteko harremana errazagoa izateko aukera ematen duelako. “Hala nola, elkarteak antolatutako ikastaroetan eta programetan parte hartzeko izen-ematea bertatik egin ahal izango da, aurrekontuak eskatu ahal izango dira eta, orokorrean, erabiltzaile eta elkartearen arteko harremana errazagoa izango da, elkartekoen berbetan.

Erabiltzaileak kontuan

Webgune berria bere beharrak asetzeko garatu du ...eta kitto!k, baina webgunea diseinatzeko orduan ezinbestekoa den alderdia hartu du “oso kontuan”: erabiltzaileak. “Nabigatzeko orduan, euren esperientzia onena izan dadin nahi dugu”, azpimarratzen dute. Horrela, erabilgarritasunaz gain, sinpletasunaren eta argitasunaren aldeko apustua egin dute.

Erabiltzaileen ohiturak kontuan hartu dituzte webgunea diseinatzeko momentuan eta, datuek adierazten duten bezala, gaur egun erabiltzaile gehienak telefono mugikorretatik sartzen dira ...eta kitto!-ren webgunean. “Beraz, gure webgunea guztiz egokitzen da gailu mugikorretara eta tabletetara, eta erabiltzaileak noiznahi eta nonahi sar daitezkeela bermatzen du”, adierazten dute ...eta kitto!-tik.

Puntako teknologia

Aipatu bezala, CodeSyntaxek puntako teknologiarekin garatu du webgunea eta, zentzu horretan, beste ezaugarri garrantzitsu bat du: beste plataforma batzuekin bateragarri izateko gaitasuna. “Tresna berriak aukera ugari ematen dizkigu albisteak eta zerbitzuak beste webgune batzuekin trukatzeko, eta modu horretan lankidetzaz sustatu daiteke beste elkarte eta komunikabide batzuekin”, zehaztu dute ...eta kitto!-koek.

Puntako teknologia erabilia, webgune berria garatu du elkarteak CodeSyntax enpresarekin

Neurrira egindako webgunea eta erabiltzaileen esperientzia onena izan dadin nahi du elkarteak

“Webguneak gailu guztietara egokitzekeo gaitasuna du”

...eta kitto! Euskara Elkartek CodeSyntax enpresa eibartarrarekin elkarlanean garatu du webgune berria eta lan horretan buru-belarri ibili da Lur Ibargutxi informatikaria. Webgunearen barrenetan sartu gara berarekin eta web-orri berriak eskaintzen dituen ezaugarriak aztertu ditugu elkarrekin.

Nolako izan da webgune zaharretik berrira jauzi egiteko egin behar izan duzuen lanketa?

Normalean, eduki asko dagoen eta historia asko duten webguneetan eduki-migrazioa izaten da lan potente bat. Izan ere, plataforma batetik beste batera mugitu behar dira gauzak, teknologia ezberdinetako plataformak izanik gainera, eta datu-esportazio eta datu-inportazio horrek ematen du lanik gehien. Kasu honetan, webgune zaharra Wordpresen zegoen eta berriak Plone teknologia erabiltzen du, baina arlo horretan esperientzia dugu eta horrek asko balio izan digu. **...eta kitto!-k bere beharretara egokitu nahi izan du webgune berria. Nola moldatu zarete nahi horiek asetzeko?**

Hori egiteko, gaur egungo metodologia eta joerak zehaztu genituen webgune moderno bat garatzeko, eta gero ...eta kitto!-ren beharrak zeintzuk diren ikusi eta adostu genituen. Azkenean, bezeroen beharren arabera jokatu behar dugu. Bezero batek behar batzuk ditu eta beste bezero batek beste batzuk. ...eta kitto!-ren kasuan albiste, argazki-galeria eta bideo dezente daude eta, zentzu horretan, lanketa egin behar izan dugu. Bestalde, portada moldagarriak diseinatu ditugu. Izan ere, egun batean albisteek izan dezakete garrantzia eta atal hori destakatu nahi da, eta beste egun batean elkartearen proiektu bati eman nahi zaio lehentasuna. Malgutasun hori eman nahi izan diogu web-orriari. Horrez gain, ikusita ...eta kitto!-n editore asko daudela, webgunearen teknologia horretarako prestatuta dago, besteak beste.

Erabiltzaileek zer eskertuko dute webgune berriarekin?

Gaur egun webguneak asko kontsumitzen dira mu-



“Gaur egungo metodologia eta joerak zehaztu genituen webgune moderno bat garatzeko”

gikorretatik, eta web-orri hau oso ondo egokitzen da mugikorretara. Ondo ikusten da mugikorretan, elementuak oso ondo daude zehaztuta, eta mugikorretako nabigazioa erraza da. Menu nagusia horretara bideratu dugu. Hiru marratxoak sakatzuz joan daiteke menura eta, zabaltzerakoan, menua lau zutabera ikusteak uste dut erraztasunak ematen dizkiola erabiltzaileari. **Moldagarria dela esan duzu. Baita etorkizunera begira ere?**

Bai, guztiz moldagarria da. Bestetik, aipatuko nuke webgune ‘responsive’ dela. Horrek esan nahi du gailu guztietara egokitzen dela. Mugikorretara bertikalean zein horizontalean, baita tabletetara ere, ordenagailuetara, pantaila txiki eta handietara... Edukia guztiz likidoa da eta ondo moldatzen da.

Euskeraz primeran! merkealdien azokan izango da datorren astean

Datorren asteke eguazten, eguen eta barixakuan (otsailak 28, 29 eta martxoak 1) neguko merkealdien azoka hartuko du Errebal Plazak, eta bertan izango da, urtero moduan, Euskeraz primeran! ...eta kitto! Euskara Elkartearen ekimen horrek erosketetan, bezero eta dendarien arteko elkarrizketetan, euskararen erabilera sustatzea du helburu. 10:30etik 12:30era jarriko du mahaia ...eta kitto!-k eta bertara hurbiltzen direnek, euskararekin lotutako dinamika erraz batean parte-hartzearen truke, oparia jasoko dute. Horrez gainera, parte hartu dutenen artean Eibar Merkataritza Gune Irekiak emandako 100 euroko erosketa-txartela zozketatuko da barixakuan, merkealdien azokan bertan gastatzeko.



Doluaren inguruko hitzaldia hurrengo martitzenean

Otsailaren 27an, martitzena, dolua eta heriotzaren inguruko hitzaldia eskainiko du Manex Berstain barrerapeuta eta psikomotrizistak ...eta kitto! Euskara Elkartearen egoitzan arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Gai horiek umeekin landu ditu Manexek, bere esperientzia pertsonaletik abiatuta ipuin batean

bildu ditu, "Azken galdera amari", eta lan hori aurkeztera dator Eibarrera. Saioa heldu zein umeentzako da (5 urtetik gora), "baina umeak gurasoekin etortzea komeni da", diote elkartetik. Aldez aurretik izena eman behar da 943200918 telefonora deituz edo mezua bidaliz (elkartea@etakitto.eus).



Barixakuak Jolasian Urkizun egongo da gaur arratsaldean

Eguraldiak laguntzen badu Urkizuko parkeak hartuko ditu Barixakuak Jolasian ekimeneko jolasak; baina euria egingo balu, eta badi-rudi horrela izango dela, Leonardo Azpirineko aterpean egingo lirateke jolasak. 17:00etatik 18:00etara izango dira, 2 eta 8 urte bitarteko umeentzat.

“Hasierako sastrakaditik pertsonaien esentzia sinbolizatzen duen bonsaia atera dugu”

NEREA IBARZABAL • Bertsolari eta idazlea



Gloria taberna dauka erdigune Nerea Ibarzabal (Markina-Xemein, 1994) bertsolari eta idazlearen lehen nobelak, *Bar Gloria* (Susa, 2022). Baserritik hirira aldatzen den Lopetegi familiaren atzera-aurrerak bildu ditu markinarrak liburura eta hiru gazteren begietatik ehundu du kontakizuna. Bertsolaritzan bakarrik ez (bi aldiz da Bizkaiko txapelduna -2021 eta 2023-), literaturan ere bikain moldatzen dela erakutsi du Nereak. Harixa Emoten euskarazko irakurketa-taldean izan da, otsaileko saioan.

70-80 hamarkadetan kokatu duzu eleberria, zurea ez den sasoi batean, baina ondo kokatu duzu irakurlea deskribapenen bidez. Nolako izan da lan-prozesu hori?

Liburuan ez da zehazki zein garaitan bizi diren zehazten, baina bai, 70, 80 eta 90. hamarkadetako erreferentziak agertzen dira. Giro hori harrapatzeko hainbat elkarrizketa egin nituen hasieran, eta argazki eta bideoen bidez ere jaso nuen orduko estetika. Jorratu nahi nituen pertsonaietako eszenatoki sinesgarri bat eraiki nahi izan nuen, baina beraien barne korapiloak ziren benetan interesatzen zitzaizkidanak, unibertsalak eta garai guztietakoak diren emozioak, alegia. **Zergatik sasoi hartako euskal herri industrial batean kokatua eta zergatik taberna bat?**

Bai herri mota hori, baita taberna mota ere, biak dirrelako nire paisaiaren parte, eta nire inguruan ere pisu handia izan dutelako. Horrelako taberna bat hitzen bidez harrapatu behar nuela bururatu zitzaidan, Lopetegitarrena bezalako familia batek gidatutakoa. Lana ulertzeko oso era konkretu bat daukate, eta euren artean hitz (ez) egiteko modu propio bat. Taberna bat herri baten maketa txiki bat izan daite-

ke, eta hor gertatzen denak asko esaten du gutaz: nor sartzten den, nor ez, nor dagoen barran, nor sukaldetan, desfasearekin zer bilatzen duen gutako bakoitzak...

Esangabekoek, isiluneek... pisua dute eleberrian. Nola landu duzu arlo hori?

Argi hitz egiten ez duten pertsonaiei buruz idatzi nahi nuela sumatzen nuen. Isiluneen eta begiraden bidez parekoa salbatzeko edo mintzeko gai diren horiei buruz. Zenbait etxetan inkomunikazioa oso ohikoa dela esango nuke, seme-alabek gurasoei ikasia auskalo zenbatgarren belaunalditik, eta horrelakoak dira liburuko pertsonaia asko. Tabernak ere, lanaren zalaparta medio, ez zidan tarte handirik uzten elkarrizketa luzeak era sinesgarrian idazteko, euren deskantsu momentuetan ez bazen.

"Taberna bat herri baten maketa txiki bat izan daiteke, eta hor gertatzen denak asko esaten du gutaz"



Ainhoa Aldazabal Harixa Emoten irakurketa-taldeko gidaria eta idazlea Eibarko saioan.

Nondik jaiotzen da Bar Gloria? Nolakoa izan zen sortze-prozesua?

Sortze-prozesu gorabeheratsua izan zen, baina ederra, hala ere. Lehendabiziko urtean asko idatzi nuen, eta bigarrenean asko ezabatu, behin Leire Lopez editorearekin elkarlanean hasitakoan. Uste dut hasieran zen sastrakadi hartatik bonsai moduko bat atera dugula, Bar Gloriako pertsonaien egunerokoaren esentzia sinbolizatzen duena.

Denboran atzera eta aurrera ari diren 27 atal ditu liburuak. Zer dela-eta antolaketa hori?

Liburu osoa taberna barruko eszenekin osatzeak klaustrofobia moduko bat eragiten zidan. Pertsonaien mosaikotasuna islatu nahi nuen: nortzuk ziren taberna hartu baino lehen, eta zer den tabernari familia bat behin taberna desagertutakoan. Haien memorian iltzatutako haurtzaroko paisaiak ere kontatu nahi nituen, hein handi batean neureen antzerakoak direlako.

Eleberria eta bi txapelketa kateatu zenituen epe laburrean. Zer nolakoa izan zen sasoi hura?

2021etik 2023ra bitarteko egun guztiak egun oso luze bat bezala oroitzen ditut, baina, era berean, ko-

"2021etik 2023ra bitarteko egunak oso luze oroitzen ditut, baina, era berean, kolorez eta emozioz betetakoak"

lorez eta emozioz betetako denbora tarte bat bezala. Bizkaiko bi txapelketa eta Txapelketa Nagusi bat jokatutako bertsolari askok, eta horrek erabat baldintzatzen dizu urte osoa. Horregatik saiatu nintzen liburuaren ibilbidea eta txapelketena bereizten, eta urtean denboraldi desberdinak eskaintzen idazteari eta bertsoari, baina ez da erraza izan.

Zer ari zara irakurtzen? Zerk eman dizu arreta azkenaldian?

Oihana Aranak "Mi año de descanso y relajación" liburuaren oparitu zidan, Ottessa Moshfeghena; bete-betean asmatu zuen.

Zertan da orain Nerea bertsolaria?

Bertsotan eta lotan.



Eibar tropikala. RAYMUÑOZ



Asteleheneko aurkezpenean artistek emandako lanak ere erakutsi zituzten.

Zaporeak erronka solidarioaren 6. edizioa aurkeztu dute

Iaz bezala, eskualdeko zortzi udalerriek hartuko dute parte ekimenean. Jakiak martxoaren 18tik 22ra arte bilduko dira eta 23an tuperrak salduko dira Errebal plazan, 5 eurotan. Bestalde, euro batean salduko diren rifetan zortzi afari eta zortzi artelan zozketatuko dira.

Astelehen arratsaldean aurkeztu zuten Zaporeak-Lesbos Proiektua erronka solidarioa Untzagako gizarte etxean. Mireia Alonso eibartarrak beste sukaldari batzuekin batera antolatutako erronkan, aurreko urteetan bezala, Greziako errefuxiatuei jaten emateko elikagaiak bilduko dituzte, martxoaren 18tik 22ra bitartean. Eibarren, pardina dilistak jasoko dira; Ermuan, Deban eta Sorraluzen, arroz luzea; Elgoibarren, garbantzu pedrosillanoa; Mallabian eta Mendaron, hodi erako makarroiak; eta Mutrikan, arraina kontserban.

Horrez gain, errefuxiatuentzat dirua biltzeko asmoz, rifak saldu-

ko dituzte, euro batean. Sariak, berriz, honakoak izango dira: bi lagunentzat zortzi afari, Sagarra, Salegi, Baratze, Belaustegi, Amatxi, Mendiola, Kontent eta Landa jatetxeetan; eta eskualdeko artistek (Elisabeth Eguren, Maite Zanguitu, Esteban Oroz, Pepi Correa, Cristina Azpiri, Fernando Dosantos, Mauri Martin eta Esther Galarza) emandako zortzi artelan. Kanpainaren amaiera-ekitaldia, berriz, Eibarko Errebal Plazan egingo da, martxoaren 23an, 14:00etatik 15:00etara. Egun horretan tuper solidarioak salduko dituzte, 5 eurotan.

Zaporeak-eko kideek azaldu dutenez, “sei hilabeterako joan gi-

nen Greziara, eta jada zortzi urte daramatzagu hango errefuxiatuei jaten ematen. Gaur egun 3.050 otordu banatzen ditugu egunero, eta horretarako janari, boluntario eta diru asko behar da”. Hori dela eta, Eibar eta inguruko herritarroi erronkarekin bat egiteko dei egin ziguten.

25.000 kilo biltzeko asmoa

Iaz Debarrenan burutu zen Zaporeak elkartearen aldeko erronkaren bosgarren edizioan parte hartu zuten lehenengo aldiz eskualdeko zortzi herriak, eta igarri zen, 12 tonelada janari bildu zelako. Aurten kopuru hori bikoiztu eta 25.000 kilo janari biltzeko erronkari egingo diote aurre.

Zaporeak proiektua 2015az geroztik dago Lesbosen: “Janari duineko 2 milioi anoa baino gehiago banatu eta prestatu ditugu maitasunez, eta mila eta bostehun boluntario baino gehiagok parte hartu dute. Orain dela hilabete batzuk iragarri genuen bezala, astero gure mugak gainditzen ari gara sukaldean, eta azken egunetan 3.000 anoa prestatzera iritsi gara. Lesbosko sutegiek kozinatutako dezaketaren gehieneko gaitasunera iritsi gara, baina errefuxiatuak elikagairik gabe geratzen dira oraindik; beraz, kanpamendu osoari iritsi ahal izateko aukeretan pentsatzen ari gara”.

Erronkaren antolatzaileek diotenez, une honetan ailegatzen ari diren errefuxiatu gehienak Palestinatik ihesi irten direnak dira: “%21 inguru dira jada, baina askoz gehiago ailegatuko direla espero dugu. Kanpamenduan dauden gehienak, %70, emakumeak eta haurrak dira. Ez daukate ezer, ez doaz eskolara, miseriatik ihesi irten dira beraien herrialdeetatik, mafien biktima izaten dira...”.

Eguenean hasiko dira Eibarko Mendi Jardunaldiak

Otsailaren 29an hasi eta martxoaren 17an amaituko dira aurtengo Eibarko Mendi Jardunaldiak. Ohiko bidetik joko badute ere, protagonista bereziak ekarriko dituzte ekitaldi guztietan, izan proiektzio, mendi ibilaldi, hitzaldi edo trail irteera. Ekitaldi gehienak, gainera, doan izango dira, aurretik izena ematea komeni den arren.

Manaslu. Eibartar bat 8.000 metro tan proiektzioarekin hasiko dira Eibarko Klub Deportiboak urtero antolatzen dituen Mendi Jardunaldiak. Coliseok 19:00etatik aurrera hartuko du hilaren azken egunean (otsailak 29) abiatuko den programazioaren lehenengoko ekitaldia. Bertan izango dira Fernando Errekalde protagonista bera eta Mikel Lizarralde hizlari bezala: “Iazko irailaren 26an igo zen lehenengo bidar eibartar bat 8.000 metroko tontor batera. Espedizio hori ardatz hartuta, bideo eta argazki lagunduz, osatuko dute hitzaldia. Errekaldek zuzenean kontatuko digu Manaslura igotzeko bere prestakuntza eta 46 eguneko bidaia tontorreraino. Bere lagun taldea ezagutuko dugu eta dituen hurrengo erronkak adieraziko dizkigu”. Euskaraz eskainiko da eta, doan bada ere, sarrera hartu beharko da.

Amunategi, Alvaro eta Trigueros Jardunaldietako bigarren urratsa martxoaren 2koa izango da, zapa-

tu horretan egingo duten ibilbide pedagogikoarekin. Mentxu Amunategi izango da horko gidaria eta, Eibar inguruko ibilaldian, bertoko landaretza ezagutzeko aukera izango da. Plaza mugatuak izango dira eta izena eman beharko da mendia@deporeibar.com helbidean.



Fernando Errekaldek, Mikel Lizarralde lagun duela, Coliseon emango du hitzaldia.



Martxoaren 6an, eguaztena, Sebastian Alvarok “Exploradores: Al filo de lo imposible” konferentzia eskainiko du Portalean. Ordubete hitzaldi horretan “gizakiaren abentura txundigarrietako bat laburbiltzen da: bera bizi den esplorazioa eta konkista”.

Martxoaren 12an eta 13an ohiko Mendi Tour jardunaldiak izango dira Coliseon, mendiarekin lotutako pelikulen proiektzioarekin. Martitzenean “Crying Glacier”, “Udalatz, ura eta atxa” eta “Everest invaders” filmak eskainiko dira. Eta eguaztenean “Zerbait aldatu da”, “A ligne de l’ange” eta “Captains on el Cap”.

Azkenik, aurtengo jardunaldiekin amaitzeko, martxoaren 17an Trail Irteera egingo dute, Silvia Trigueros lagun dutela ohiko salsaldiarekin jarraitzeko. Barakaldoarrak hainbat proba irabazi ditu, GH2, Ehunmilak, Basque Ultra Trail Series, Tor des Géants, 100 miglia del Monviso, Cervino Matterhorn Ultra Race eta Ultra Trail del Lago di Como UTLAC tartean, batzuk behin baino gehiagotan.



Mentxu Amunategi (martxoak 2).



Sebastian Alvaro (martxoak 6).



Silvia Trigueros (martxoak 17).

Klasikoa Gorbeia

Datorren martxoaren 2an beste Klasiko batera irtengo dute Deporrek, Gorbeia tontorra egiteko asmoz. Gorbeia Parke Naturalean egingo duten txangoa 20 kilometrokoa izango da, 966 metroko desnibela gainditzeko. Pagomakurren hasita, Gatzarrieta (1.181 metro), Gorbeia (1.482 m.) eta Aldamin (1.376 m.) egin ondoren, Zeanurin amaituko dute. Bizkaiko bigarren mendi altuenean, Aldaminen, Deporrek jarritako buzoia ikusiko dute. Informazio gehiago: martitzen eta eguenetan, 19:30etik 20:30era, eta telefonoz (943 201904).

Aurreko zapatuan burututako sagardotegiko irteeran, 49 lagun elkartu ziren Deporrek eta Elgoi-



Umeekin egindako irteeran Donostiatik Pasaiera joan ziren, 9 kilometroko ibilbidean.

barko Morkaikok elkarlanean antolatutako irteeran. Goizaldean lainopea izan zuten lagun tarte handienez; jaisterakoan, aldiz,

eguzki ederra izan zuten lekuko. Bidean Deporrek 1978an jarritako buzoia bisitatu zuten Arastortzen.

Umeekin kostalderra

Umeekin egindako ikasturteko bosgarren irteeran, bi autobus bete zituen 49 hurrez eta hainbat gurasoz osatutako taldeak, 9 kilometroren bueltako ibilbidea egiteko. Donostiako Gros auzotik aldapan gora abiatuta, Uliamendiaren labirinto bideetan barnerratu, La Plata itsasargi dotorearen azpitik pasatu eta ibilaldia Pasaiaiko portu sarreran amaitu zuten. Hurrengo irteera berezia izango da, estreinakoz Ibilaldi Neurtua egingo baitute Arrasaten, martxoaren 3an.



Elgoibarko Morkaikorekin batera egindako sagardotegiko irteeran 49 lagun bildu ziren.



Kalamuako bi ordezkari kata eta gokyo kurtsoan

Tolosako Usabal kiroldegian izandako saioan hartu zuten parte biek ala biek, Euskal Judo eta Kirol Elkarteen Federazioak antolatutako Kata eta Gokyo mailak lortzeko prestakuntzan. Gaur egun Kalamua klubaren ardura duen Hegoi Esteban. Dana lortzeko bidean da, eta Eneko Korta, bestalde, gerriko beltza lortzeko ahaleginean.

Eibar-Espanyol igoerari begirako lehia bihar Ipuruan

LaLiga Hypermotioneko bigarren eta hirugarren arteko lehia izango da bihar arratsaldean Ipuruan, 18:30etik aurrera. Eibartarrek bi puntu gehiago dituzte sailkapenean eta, abantaila horri eustean gain, handitzeko helburuarekin zelaituko dira. Hala ere, ez dute lan erraza izango, Garagarzaren "perikitoek" 1. Mailara igotzeko hautagai nagusiak izaten jarraitzen duelako.

Udaberri Sariak Eibarko Txirrindulari Elkartearen egutegiari emango dio hasiera

Domeka goizean jokatuko den junior mailako Udaberri Sariak 46. edizioa biziko du etzi, ondo bidean. Iaz zen jokatzea edizio hori, baina orduan izandako arazoek (lortura-motorren eta Eusko Jaurlaritzaren artekoak, lasterketaren segurtasuna tarteko) proba bertan behera lagatzera behartu zituzten antolatzaileak. Probintzia mailako proban parte hartuko duten juniorrak, T. Etxebarrian bildu eta gero, 09:45ean abiatuko dira Calbeton kaletik, irteera neutralizatuan.

Parte-hartzaileek 78 kilometroko ibilbideari egingo diote aurre, lehenengo Bergarara joan eta, han buelta emanda, Maltzagaraino itzultzeko. Hortik Deba, Mutriku, Ondarroa eta Etxebarriatik pasa



ondoren, 3. mailako San Miguel gaina gaindituko dute, jarraian Elgoibarrera jaitsi eta, zuzenean, Eibarko helmugaren bila jotzeko. Meta T. Etxebarria kalean egongo da; bertara 11:40ren bueltan heltzea espero dute antolatzaileek.



Saskibaloiko Artesanos Juantxo taldeak igoerako faseari ekingo dio bihar

Gipuzkoako 2. Mailan jokatzen duen Artesanos Juantxo taldeak lehenengo faseko azken jardunaldian Mondragon Unibertsitatea B aurkari zuzenaren aurrean galdutako partiduarekin azkenean sailkapenean zuen bigarren postua galdu bazuen ere, hirugarrenean amaitzeko, postu horrek aukera eskaintzen dio asteburu honeta-

tik aurrera igoera faseari ekiteko. Hasteko, Eibarko taldea Zarautzera joango da; hemendik aurrerako aurkariak zailagoak izango dira, jakina, baina Erik Martinezen aginduetara jokatzen duen taldeak dagoeneko ohituta dago partiduak bereganatzera, lehen fasean eskuratutako 23 puntuak erakusten duten bezala.



Pilotari onenak etzi Astelenako jaialdian

Eibarko Klub Deportiboaren 100. urteurrena bizitzen dihardugun honetan, domeka honetarako pilotari jaialdia antolatu dute Astelenan. Jaialdia gizonezkoen ohiko ordutegia baino ordu erdi geroago hasiko da, 17:30ean, eta bi partidu hartuko ditu, une honetako emakumezko pilotari onenen presentziarekin.

Master Cup zirkuitoko gorenean dauden pilotariak honela osatuko dituzte pilota-partiduak: lehenengoan, Arraiza eta Erasunek Beitia eta Billyak izango dituzte aurkari; eta bigarrenengoan Aldai-Mendizabal eta Arrizabalaga-Arrillaga bikoteen arteko goi mailako lehia izango da. Aukera polita pilotazaleentzat.



Mek Eibar-ek Zarautz liderra hartuko du

Zapatu honetan 1. Nazional Mailan jokatzeko duen Mek Eibar Eskubaloiko lehen taldeak aurkari ezin zailagoa izango du Ipurua kiroldegian. Arratsaldeko 18:30ean hasiko den norgehiagokan sailkapenean ihes eginda dagoen Amenabar Zarautz liderra izango du aurrean. Hala ere, eibartarrek aurrepegia eman nahiko

dute maila horretako aurkariaren aurrean, joaneko partiduan ondo erakutsi zuten bezala, kostaldekoen kantxan bakarrik bi golenatik galdutako partiduan (32-30). Ezenarro Taldera itzuliko da, baina Zuloaga baja izango da eta Jonayren parte-hartzea zalantzan dago. Beñat pibote gazteak debu-

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Gizonezkoen 2. Maila

EIBAR - Espanyol (bihar, 18:30)

Emakumezkoen 3. Maila RFEF

EIBAR B - Salamanca (etzi, 12:30)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

VITORIA - Deusto (etzi, 15:30)

Emakumezkoen Euskal Liga

Oiartzun B - EIBAR C (bihar, 17:15)

Erregionaleko Ohorezko Maila

Beti Gazte - EIBAR URKO (etzi, 16:30)

Erregionaleko Gorengo Maila

URKI - Ikasberri (bihar, 16:00)

Erregionaleko 1. Maila

EIBARTARRAK - Zarautz B (etzi, 18:00)

Jubeniletako Ohorezko Maila

EIBAR - Vasconia (bihar, 12:30)

Jubeniletako Liga Nazionala

Beasain - EIBAR B (etzi, 16:00)

Kadeteetako Euskal Liga

EIBAR - Ariznabarra (gaur, 19:30)

FOBALI-ZALETUA

- Baserri - Adahi Eraieder (bihar, 09:00)
- Xania Taberna - Bar Marem (bihar, 10:30)
- Garajes Garcia - Malape (etzi, 09:00)
- GastroGilda - Malape Rueda (etzi, 10:30)

ESKUBALOIA

Emakumezkoen Zilarrezko Maila

Beti-Onak - MEK EIBAR (bihar, 18:00)

Gizonezkoen 1. Nazional Maila

MEK EIBAR - Amenab. Zarautz (bihar, 18:30)

Emakumezkoen Euskadiko Liga

MEK EIBAR B - Leizaran (etzi, 11:45)

Gizonezkoen Lurraldeko Liga

Soraluze - MEK EIBAR B (bihar, 17:30)

FRRUGBIA

Gizonezkoen Euskadiko Erregionala

EIBAR - Atletico SS

SASKIBALOIA

Emakumezkoen Gipuzkoako 2. Maila

Eskoriatza - EIBAR (gaur, 20:30)

Gizonezkoen Gipuzkoako 2. Maila

Zarautz - Artesanos Juantxo (bihar, 20:00)

Arri BKL - EIBAR B (bihar, 18:00)

WATERPOLOA

Gizonezkoen Euskal Herriko Liga

Askartza B - URBAT B (bihar, 16:30)

XAKEA

Gipuzkoako 2. Mailako Liga

Goierri - EIBAR (bihar, 16:00)

PILOTA

Klub Deportiboko 100. Urteurrena

Arraiza/Erasun - Beitia/Billya
Aldai/Mendizabal - Arrizabalaga/Arrillaga
(Astelenan etzi, 17:30)



“Ehun bikote baietz Euskal Jaian dantzan”

Eibarko Klub Deportiboak aurten 100 urte bete dituela-eta, hori ospatzeko, 59. Euskal Jaia berezia izango da. Horregatik, Eibarko dantzari eta txistulari guztiei, “belaunaldi eta garai guztietakoei”, dei egin diete maiatzaren 26an, Euskal Jai egunean, plazan denak elkarrekin aritzeko. Arduradunen berbetan, “190 dantzarik eta 30 txistularik eman dute izena dagoeneko. Dantzariak lehen hiru entseguak egin dituzte, eta txistulariek ere egin dute lehena. Oraindik hiru hilabete falta dira; beraz, nahi duten guztiak batzeko aukera dago oraindik. Ehun bikote baietz Euskal Jaian dantzan!”. Entsegu guztiak Errebalen izango dira eta dantzariarentzat hurrengo bihar izango da, 10:30ean. Informazio gehiago Interneten, Kezka dantza taldearen webgunean.



Martxoaren 22an ailegatuko da 17. Logela ihes-gela

Euskaraz barra-barra (e//) kanpainaren eskutik, martxoaren 22, 23 eta 24an ailegatuko da Eibarrera 17. Logela ihes-gela ibiltaria. Untzagak hartuko duen jarduera doakoa da, baina aurrez erreserba egin behar da, euskarazbarrabarra.eus webgunean. 40 minutu iraupena du, eta txanda ezberdinak egongo dira.



Jussi Jo' Buddy finlandiarraren musika Portalea Musika Klubean

Kontzertua emango du Jo' Buddy (Jussi Raulamo) musikari finlandiarrak domekan, 19:00etatik aurrera, Portalea Musika Kluba egitasmoaren baitan. Jussik Finlandiatik igaro diren blues-musikari ia guztiekin jo du, eta baita Estatu Batuetakoekin ere. Oso estilo pertsonala du. Bere musikak bizipoza transmititzen du eta, gainera, atemporala da, lurrari lotua eta espirituala. 40 urteko esperientziarekin, 16 herrialde baino gehiagotan jo du. Sarrerak 10 euro balio du, 7 euro Coliseoaren Laguna txartela dutenentzat.



Korrikako arropa eta Baionara joateko autobusa

Domekan, 11:00etatik 14:00etara, 23. Korrikako arropa saltzen egongo dira Untzagan AEK euskaltegikoak. Horrekin batera, martxoaren 24an, 23. Korrikako azken egunean Baionara joateko autobusa antolatzen ari dira. Autobusa 09:00etan irtengo da, Ego-Gainetik (09:15ean Soralezetik eta 09:30ean Elgoibartik), eta buelta 19:30ean izango da. Prezioa 15 eurokoa da, eta izena emateko Whatsapp bidali behar da zenbaki honetara: 688 74 66 34.



Leire Kareagak erakusketa zabalduko du gaur Portalean

Gaur 19:00etan inauguratuko du Leire Kareaga artista eta irakasle eibartarrak *Quo vadis, Europa?* izenburuko erakusketa, Portalean. Artistaren berbetan, “2000. urtean egin nuen bakarkako nire lehen erakusketa, izenburu honekin. Marrazkien, grabatuen eta pinturen ardatzean daude edozein gatazkak eragiten dituen izua, bakardadea eta hutsunea. Orain, izenburu bereko beste erakusketa bat egiteko beharra sentitzen dut. Bertan, 90eko hamarkadaren amaierako zirriborro, grabatu eta pinturekin batera, sorkuntza berriagoko lanak aurkezten ditut”. Eta bihar, berriz, Andrea Alvarezen *Zure baratzean hazten den guztia* erakusketa zabalduko dute, hori ere Portalean. Martxoaren 24ra arte egongo dira ikusgai biak.



Benidormeko eguzkia Garaguneraino eraman dute

Juanma Cano eta Maite Lorenzo aktore eibartarrak Garagunearan egon dira, bertakoentzat antzeztan. Eguaztenean izan zen saioan, La Red Teatro taldekoek *Benidorm* eskaini zuten eta, publikoak ez ezik, aktoreek asko disfrutatu zutela adierazi zuten amaieran.



Einer Rodriguez Poncek zaharberritutako argazkiak

Domekan itxiko dute Einer Rodriguez Ponce argazkilariaren *Entre recuerdos-Oroipen artean* erakusketa, Untzaga gizarte etxean. Antzinako argazkiak, edo urteekin hondatutakoak, argazkilariak zaharberritu eta gero nola geratu diren ikus daiteke bertan. Erakusketa horretarako Daniela Agudelo Pintaren laguntza izan du. Gaur 19:15etik 21:15era joan daiteke ikustera. Eta bihar eta etzi, 12:00etatik 14:00etara.

MICEren musikarekin girotutako marrazketa-saioa bihar Ipuruan

Maite Arriaga sormen-artistiko tailerrak antolatuta, marrazketari buruzko “Jam Session” saioa egingo da bihar, Ipuruako Merkatu Plazan, 19:30etik 21:30era. Marrazteko materiala norberak eraman beharko du. Zuriñe eta Nika modeloek hartuko dute parte, eta zuzeneko musika egongo da Miren Narbaiza MICE-ren eskutik. Sarrerak 5 euro balio du. Informazio gehiago 614 131 174 Whatsappean.

Jose Zugastiren kartela izango du 85. Musika Hamabostaldia



Abuztuan egingo den jaialdia iragartzeko eibartarraren irudia aukeratu dute. Itsasoko olatuetan inspiratutako margolana da eta, Zugastiren berbetan, “orkestra-zuzendariak batu-tarekin espazioan musika marrazten duen bezala, pinturaren formak betea denaren izaeratik askatzeko borrokatzen dira”.



**Begoña Etxaide
Zenarruzabeitia**

2024/02/16

**“AMA:
Beti bihotzean
eramango
zaitugu”**



UNANUE TA ETXAIDETAR
FAMILIAK

Tere Ajuria Etxebarria
(JAIME BAGLIETTOren alarguna)
(2024/02/17)

**“Eman zenigutena
gure bihotzean
geratu da”**



**ESKERRIK ASKO
AITXA ETA AMARI**

- FAMILIA ETA XIOMARA,
RAQUEL ETA BRENDA -



**Fernando
Ulazia Lejardi**

1. URTEURRENA
2023/02/25

**“AITXA: Zure
maitasuna bizirik
dago gure
bihotzetan”**



- ZURE FAMILIA -

Jose Maria Arana Arrate
1. URTEURRENA: 2023/02/19



**“Fisikoki gurekin
ez bazaude ere,
gure bihotzetan
zaitugu betirako”**



- ETXEKOAK -



**Juan Antonio
Hernandez Manzano**

4. URTEURRENA
2020/02/20

**“Inoiz ez zaitugu
ahaztuko. Betiko
egongo zara
gure bihotzetan”**



- ETXEKOAK -

Felix Bergara Zurutuza *apaiza*
11. URTEURRENA (2013/02/22)

**“Eskerrak eman nahi
dizkizugu, Felix,
parrokiaren eta auzoaren
alde egindako
lan guztiagatik”**



Haren aldeko
URTEURREN MEZA
ospatuko da domekan
(otsailak 25), 10:30ean,
AZITAINGO parrokian.

- M^o CARMEN HAREN IDAZKARIA, SENIDEAK, JASOKUNDEKO
ELIZTARRAK ETA EIBARKO LAGUN GUZTIAK -



Egitarau osoa
deskargatzeko:



otsailak 23 (barixakua)



“Las guerras de nuestros...”

Pentación Espectáculos (Madrid)
Miguel Delibes: Eduardo Galanen bertsioa
Drama / 90'

Antzeleak: CARMELO GOMEZ,
MIGUEL HERMOSO

Zuzendaria: CLAUDIO TOLCACHIR

Gerrari uko eginez, bakea bizitzarako bidetzat hartzen da. Eleberriarren jatorrizko eskemari jarraituz, Pacifico protagonistak espetxeko psikiatrarekin izandako zazpi elkarrizketak.

Coliseo (19:00)

otsailak 24 (zapatua)



“Gurpil gainean”

Demode Quartet (Gipuzkoa)

Kale antzerkia

Antzeleak: IKER HUITZI, JOLI PASCUALENA,
SANTI ROMANO, KARLOS NGUEMA

Zuzendaria: PATXI BARCO

Demode Quartet laukotearen a capella ahots ikuskizun musikala. Euren kuartzirikloarekin abesti dibertigarriak abestuko dituzte kalean zehar, umore handiarekin jendea liluratuz.

Errebal-Untzaga (12:30 & 19:30)

otsailak 24 (zapatua)



“El jardín de posibilidades”

El Tejo Producciones (Kantabria)
Carlos Troyanoren lana
Drama / 90'

Antzeleak: EVA BARON, LIDIA CASARES,
PATRICIA CERCAS, BELEN GALARZA

Zuzendaria: ANABEL DIEZ

Anabel Diez eibartarrak zuzendutako lanean Lorcaren heriotzari buruzko lehen ikerketaren historia egiten da. Barkatzen jakitea, gerraren basakeria eta baldintzarik gabeko maitasuna.

Coliseo (19:00)

otsailak 27/28 (martitzena/eguzitena)



“Esnearen kolorekoa”

Tanttaka (Gipuzkoa)
Nell Leyshonen egokitzen-lana
Drama / 90'

Antzeleak: JOSEBA APAOLAZA,
MIREN ARRIETA, MIREIA GABILONDO

Zuzendaria: FERNANDO BERNUÉS

Publikoa liluratu eta hunkitu zuen liburu baten antzerkirako egokitzen-lana. Edertasun tragiko batez, mikrokosmos ikaragarria irudikatzen da, Frantziako Femina sarirako proposatuz.

Coliseo (19:00)

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

1	2		4	6	7		
6			7	8	9		
		9				5	
8	1	6					
				7	8	5	
	6				3		
		3	1	2			9
		8	9	3		6	7

4	9	2	0	9	0	1	0	
6	9	5	2	9	1	0	4	7
1	7	0	0	4	8	2	0	8
5	6	8	4	1	0	9	7	2
9	2	1	7	8	5	4	0	0
0	4	7	6	0	9	1	0	8
7	9	1	0	2	6	9	4	
2	1	6	9	5	4	7	0	9
8	0	4	9	0	7	0	0	1

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**


ZERTXOBAIT ZAILAGOA

							5	
6				1		4		
	2		5	4	7			
		6					4	9
1	4		9		8		3	6
9	7					8		
			1	6	5		7	
		3		2				4
7								

soluzioa

2	9	5	0	8	7	1	6	4
4	0	1	6	2	2	0	9	5
0	2	6	0	0	1	7	2	
1	5	8	8	0	0	0	8	
9	0	2	8	2	6	4	0	1
0	0	0	0	1	5	2	0	0
0	0	0	0	0	0	0	0	0
1	1	9	7	4	4	5	6	0
0	5	8	0	1	0	2	1	0
4	7	0	4	0	4	0	0	0
5	0	6	9	6	9	0	2	2

LABIRINTOIA



Otsailak 23 / 29

BARIXAKUA 23

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:00/18:00 Jolasak, euskaraz, 2 eta 8 urte bitarteko umeentzat. ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Doan. Urkizu (parkea).

INAUGURAZIOA

19:00 "Quo vadis, Europa?", Leire Kareagaren artelanen erakusketa. Portalea.

XLVII. ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "La guerra de nuestro antepasados" (Pentacion Espectaculos, Madril). 15 euro (10 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

ZAPATUA 24

XLVII. ANTZERKI JARDUNALDIAK

12:30 eta 19:30 "Gurpil ganean" (Demode Quartet, Gipuzkoa). Kale-antzerki ikuskizuna. Errebaletik Untzaga.



ZAPATUKO IPUINA

18:00 "Mamuak eta beste azukide batzuk" ipuin-kontakizuna, Nerea Ariznabarretaren eskutik. Portalea (areto nagusia).

INAUGURAZIOA

19:00 "Zure baratzean hazten den guztia", Andrea Alvarezaren artelanen erakusketa. Portalea.

XLVII. ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "El jardín de las posibilidades" (El Tejo Producciones, Kantabria). 10 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

DOMEKA 25

23. KORRIKA

11:00/14:00 23. Korrika arropa-salmenta. Untzaga.



MANIFESTAZIOA

13:00 "Gelditu dezagun genozidioa!", Eibar Palestinarekin eta Eibarko Gerrarik Ez taldeek antolatuta. Untzaga.

EMAKUMEZKOEN PILOTA

17:30 Eibarko Klub Deportiboaren 100. Urteurrena ospatzeko. Arraiza-Erasun / Beitia-Billyak; Aldai-Mendizabal / Arrizabalaga-Arrillaga. Astelena.



MUSIKA

19:00 Jo' Buddy. Portalea Musika Kluba. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Portalea (areto nagusia).

MARTITZENA 27

XLVII. ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "Esnearen kolorekoa" (Tanttaka, Gipuzkoa). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

EGUAZTENA 28

EIBAR FACTORING

10:00/20:00 Neguko Auken Azoka. Errebal Plazia.

XLVII. ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "Del color de la leche" (Tanttaka, Gipuzkoa). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

EGUENA 29

EIBAR FACTORING

10:00/20:00 Neguko Auken Azoka. Errebal Plazia.

TOPAKETA

11:00/13:30 Eibarko Industrien Ekosarea. Jasangarritasuna, Eibarko enpresa txiki eta ertainen lehiarkotasun faktore. Kasu praktikoak eta aukerak. Errebal (A gela).

MENDI JARDUNALDIAK

19:00 "Manaslu, eibartar bat 8000 metroan". Fernando Errekalde eta Mikel Lizarralderen proiektzioa. Doan. Coliseo.



FRAKUSKETAK

Otsailaren 25era arte:

- **"ENTRE RECUERDOS"**, Einer Rodriguez Ponceren argazkiak. (Untzaga gizarte etxea).

Otsailaren 29ra arte:

- **"EME, ESTILO ARIKETAK: Emakumeen aurkako indarkeria sinbolikoak"**, Josune Aranguren Zatika eibartarraren erakusketa. (Andretxea).

Martxoaren 4ra arte:

- **EUSKAL JAIKO KARTELAK**. (Topaleku).

Martxoaren 24ra arte:

- **"QUO VADIS, EUROPA"**, Leire Kareagaren artelanak. (Portalea).
- **"ZURE BARATZEAN HAZTEN DEN GUZTIA"**, Andrea Alvarezaren artelanak. (Portalea).

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **24an:** 22:30 (2 Aretoa)
- **25ean:** 20:00
- **26an:** 19:00

"Priscilla"
DRAMA



2023/AEB/110'
Zuzendaria: Sofia Coppola
Aktoreak: Caillee Spaeny, Jacob Elordi, Emily Mitchell
Biografikoa/Musika

2 ARETOA

- **24an:** 19:30
- **25ean:** 17:00, 20:00
- **26an:** 19:30

"El color púrpura"
MUSIKALA



2023/AEB/140'
Zuzendaria: Blitz Bazawule
Aktoreak: Fantasia Barrino, Danielle Brooks, Taraji Henson
Feminismoa/Arazismoa

ANTZOKIA

- **24an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **25ean:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **26an:** 19:30

"Bob Marley. One love"
MUSIKALA




2024/AEB/104'
Zuzendaria: Reinaldo Marcus
Aktoreak: Kingsley Ben-Adir, Lashana Lynch, James Norton
Drama/Biografikoa/70. urteak

ANTZOKIA

- **24an:** 17:00 (2 Aretoa)
- **25ean:** 17:00

"Corre, Tiger, corre"
ANIMAZIOA



2023/Txina/89'
Zuzendaria: Stanley Tsang
Abenturak/Umeentzakoa



Ametz Martin Bastida

2. URTEURRENA
2022/02/22

**"Ai zelako irriparra!
Hura da nire iparra, gidatzen nauen izarra!"**

**ZURE ARREBA
ETA ZURE AMA**

FUNEUSKADI
Grupo Apóstrofo



TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funerariak



**TANATORIO CREMATORIO
ELGOIBAR**

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xixillon, s/n. SIGMA industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
---	--

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **XABAT**, domekan 6 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **LAIA**, domekan 5 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **UNAX**, hillaren 27xan 8 urte beteko dozuz-eta. Jarraitu hain zoriontsu izaten. Maite zaittugu.



Zorionak, **JON!!!!** Martitzenian 9 urte beteko dozuz-eta. Musu potoluak famelixakuen eta, batez be, Maialenen partez!



Zorionak, **IKER**, astelehenian 11 urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez!!



Zorionak, **IÑAKI**, etxeko superheroia! Jarraitu beti bezain jator eta alai. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **ANDER!!** Martitzenian 4 urte beteko dozuz-eta. Patxo potolo bat famelixaren eta, batez be, Julenen partez. Asko asko maite zaittugu.



Zorionak, **XABI**, mutil haundi, atzo 7 urte bete zenduazelako. Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, Iraiaren partez!




Zorionak, **ENEKO!** Domekan 7 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez-be, Eleneren partez.



Zorionak, **HAIZEA**, hillaren 10ian 4 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **JESUSA** (bixar 85 urte) eta **ANER** (gaur 15 urte). Egun apartak opa deusuegu, famelixa eta lagunekin ospatzeko. Famelixaren partez.



Zorionak, **ALBA** Cid, hillaren 29xan 8 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **ARATZ** eta **MARKEL**, eguaztenian 4 urte bete zenduz-eta. Besarkada eta musu potolo asko etxekuen partez!



Zorionak, familia! **AMAK** 18xan egin zittualako urtiak, **PAULEK** 21ian eta **AITATXOK** gaur. Asko maite zaittuet. Musu haundi bat amatxoren partez.



Zorionak, **AITOR** (13 urte) eta **GARI** (10 urte)!! Patxo potolo bat famelixaren partez.

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Deban etxebizitza alokagai, aldi baterako: hilabeteka, asteka. Eguzkitsua, 3 logela, 2 balkoi eta igogailua zero kotatik. Guztiz jantzita. 657795876 (arratsalde).

2. MOTORRA

2.1. Salgai

- 2008ko Citroen C3 HDI 70 Audace salgai, diesela eta granite kolorekoa. 116.500 kilometro besterik ez, oso egoera onean, garajea beti. IAT erregelan. 645930806.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Abontzan garaje itxia salgai. 626528738.

3.2. Errentan

- Garajea bilatzen dut Ipuru zonaldean. 80 euroko aurrekontua. 628933542.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Esperientzia handia sukaldari, zaintzaile eta garbitzaile bezala. 641196232.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko Eibar eta inguruan. 613287661.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. 641417815.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (habilitazioarekin). Esperientzia. 604120104.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako (etxeak, bulegoak). 604392529.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. 642084800.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 613395684.
- Emakumea eskaintzen da etxeak garbitzeko eta obrerako azkenak jasotzeko. 638421827.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbiketarako egiteko. Interna. 661181824.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. 643398596. Maribel.
- Emakumea eskaintzen da etxean lan egiteko. 654154301.
- Emakumea eskaintzen da etxean lan egiteko. 631803496.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. 605402030.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko. 612202116.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Baita asteburuetan ere. 611215176.
- Emakume arduratsua eskaintzen da goizez nagusiak edo umeak zaintzeko. 602800266.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 642177589.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. 642604493.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 642578943.
- Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko. 613965662.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. 679912841.
- Neska arduratsua eskaintzen da 13:00etik aurrera nagusiak zaintzeko eta etxeak edo pegoak garbitzeko. 620757528.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta kamarera bezala. 631502177.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Esperientzia nagusiak zaintzen. 623731063.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. 632229972.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez edo ospitalean ere. 644943297.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez edo ospitalean ere. 644655354.

4.2. Langile bila

- Saltzailea behar dugu igandetarako. Lanaldi edo jornada zaitua. Bidali curriculum: acitain@gmail.com
- Interna behar da nagusia zaintzeko. Paperekin. 687114707.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Kanping-denda kanadiarra salgai. 4 lagunentzako. 30 euro. Ia berria. 943701013 / 659538758. Iñaki.
- Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. 688624326.

6.2. Eman

- 2 urteko bi txakur oparituko nituzke. Labradorre arrazakoa bat, eta ehizakoa bestea. Txertoaz eguneratuta. 653733457.
- Musika klasikako bilduma (100 CD) oparituko nuke. 656732584.

gremioen gida



ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa: 943 12 73 50
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

ELEKTRIZITATEA

THELECER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko
urgentziak
610 532 922 www.thelecer.com

ITURGINTZA

PERU FONTANERO

iturgintza eta kalefakzio konponketak



telefonoa: 660522521 whatsapp: 605403596

Termo elektrikoan aldaketa
Manparen instalazioa

Erradiadoreetako ihesen konponketa
Komunetako ihesen konponketa/aldaketa
Etxeko elektrizitate arloa ezagutzen dugu
Destratatzeak / Pintura lanak

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko
AROTZEGIA

balta toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoa: 943 12 13 67 www.ulmar.net

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza
irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobeez
goza dezazun

Azitäten Industrialdea, 3 H Pabiloia
Tfnoa: 943-120108
www.irazabal.net

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia
HELBIDE
BERRIA : J.A. GISASOLA, 4 - ac
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@cristeriaacha.com eta faxa: 943 203 903



943-206776



zarelakopara

Egin zaitez bazkide!

eta kitto!
euskara elkarte